

**GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2020/2021 ikasturtea**

**INOREN KARGURA EZ DAUDEN GAZTE ATZERRITARRAK  
ADIN-NAGUSITASUNAREN ETA COVID-19aren AURREAN**

**Egilea:** Elixabet Oyarbide Aramburu

**Zuzendaria:** Marina Sagastizabal Emilio-Yus

**Leioan, 2021eko Ekainaren 1ean**

## **Laburpena**

Ikerketa honen helburua inoren kargura ez dauden adingabeak adinez nagusi direnean pairatzen duten egoera eta Covid-19ak egunerokotasunean izan ditzakeen eraginak aztertzea da. Gazte hauek adingabeak direnean gobernuak babesteko beharra dauka, baina behin adin-nagusitasuna lortzean, zaugarritasun egoera larrian geratzen dira. Ondorioz, ikerketa honen bitartez hiru emaitza bilatu nahi dira: gazte hauek adin-nagusitasuna lortzean errekurtsoak aurkitzeko zein hauek sartzeko dituzten zailtasunak azalartzea, errekurtso hauek beraien gizarteratzea bermatzen duten ala ez baieztatzea, eta Covid-19aren krisiak gazte hauen egunerokotasunean izan ditzakeen ondorioak aztertzea. Lau elkarrizketa egin ostean, baieztatu daiteke egun, adinez nagusi diren gazteak babesteko dagoen sistemak gabezi asko dituela eta babes sistema honen helburua ez dela gazteen gizarteratzea bermatzea.

**Hitz gakoak:** Inoren kargura ez dauden gazteak, adin-nagusitasuna, gizarteratzea, Covid-19-a, emantzipatzeko baliabideak.

This dissertation aims to show the situation unaccompanied migrant minors suffer once they are adults and the consequences Covid-19 can have on them. While they are minors, the government must protect them, but once they turn eighteen, they are in a vulnerable position. Therefore, with this research, we aim to obtain three results: the difficulties migrants have when they are adults to obtain help, whether the help provided allows them to integrate into society and the consequences that Covid-19 can have in their daily life. After conducting four interviews, we can claim that the system that has to protect the unaccompanied migrants has lots of flaws and its main objective is not to integrate the migrants into nowadays society.

**Key words:** unaccompanied migrant minors, legal age, social inclusion, Covid-19, emancipation resources.

El objetivo de esta investigación es enseñar la situación que sufren los migrantes no acompañados una vez obtienen la mayoría de edad y las posibles consecuencias que puede tener la Covid-19 en su día a día. Mientras son menores, el gobierno tiene la obligación de protegerlos, pero una vez cumplen dieciocho años se encuentran en una situación de vulnerabilidad. Por ello, mediante esta investigación se quieren adquirir tres respuestas: las dificultades que los migrantes tienen para obtener ayudas cuando son mayores de edad, saber si la ayuda que obtienen les permite integrarse en la sociedad y las posibles consecuencias de la Covid-19 en el día a día. Después de llevar a cabo cuatro entrevistas podemos afirmar que el actual sistema de protección de los jóvenes migrantes tiene carencias y que cuyo objetivo principal no es asegurar la integración de estos jóvenes en la sociedad.

**Palabras clave:** menores no acompañados, mayoría de edad, Covid-19, inclusión social, recursos de emancipación.

## Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Esparru teoriko eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	4
a. Jatorria eta helmuga	4
b. Adin-txikitasuna	6
c. Adin-nagusitasuna	8
d. Gizarteratzea	11
e. Covid-19aren inpaktua migratzaileengan	13
3. Metodologia	15
4. Lanaren laburpena	15
a. Ikerketa helburuak	15
b. Azterlana diseinatzea	16
c. Egoera hautatzea, taldeak eta ezaugarriak	16
d. Datuak biltzeko tresnak deskribatzea	18
e. Prozedura	18
f. Bildutako datuak aztertzea	19
i. Jatorria-helmuga	19
ii. Adin-txikitasuneko babes-sistema	22
iii. Adin-nagustitasuna	24
iv. Gizarteratzea	29
v. Covid-19ak izan duen eragina	31
5. Emaitzak	33
6. Ondorioak	35
7. Bibliografia	38

## 2. Sarrera

Azken urteotan, batez ere, 2000. urtetik gaur egun arte, oso ohikoa izan da bakarrik dauden gazte migratzaileen mugimendua Euskal Herrian. Etorri direnen kopurua konstantea ez izan arren, beti egon da migrazio-fluxua. Hala ere, hauen agerpena Espainian zein Euskal Autonomia Erkidegoan 80. eta 90. hamarkadetan jazo zen, baina 2000. urtea izan zen pertsona hauen kopurua nabarmen igo zenean (Mendoza eta Belarra, 2015).

Gazte hauen migrazio-fluxuaren kopurua horren handia izan da, ezen hauei izandatzeko zein definitzeko beharra ikusi baita. Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko 2011ko Errege Dekretuaren arabera kolektibo honen parte izateko hemezortzi urtetik beherako atzerritarra, legez edo ohituraren arabera, Espainiako lurraldera haren ardura duen helduren batekin etortzen ez dena izan behar da eta adingabearen babesgabetasun-arriskua hauteman behar da (Cheddadi, 2017). Bakarrik dauden gazte migratzaileei gazteleraz Menores Extranjeros No Acompañados (MENAS) izena ezarri zieten, euskaraz, berriz, Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaile (IKEDAM) moduan izendatu zituzten (Epelde, 2014).

Espainiako legediak, bere lurraldean dagoen edozein adingaberi, babesgabezia-egoeran daudenei, jatorri edo nazionalitate bereizketarik egin gabe, nahitaez arreta berezia eta babesa eskaini behar die (Ruiz, Palma eta Vives, 2019). Hau horrela izan da eta IKEDAM-en etorreren kopuruak izan duen goranzko joera kontuan hartuta, Estatu Espainolak zein bertako Autonomia Erkidegoak, adingabeen babesean soilik zentratu dira. Horrez gain, etorreren etengabeko goranzko joera horrek babes-sistemaren kolapsoa eragin du. Ondorioz, gazte hauek adinez nagusitasuna lortzean, jasotzen dituzten laguntza eskasengatik, berriro ere, babesgabetasun egoeran geratzen dira. Gaur egun, Covid-19-aren krisia dela eta, adinez nagusi diren gazte atzerritarren egoera are kaskarragoa dela pentsa daiteke. Horregatik, lan honen helburua IKEDAM-ak jada adinez nagusi direnean aurkitzen duten egoera zein den eta Covid-19ak beraiengan izaten ari den eragina aztertzea izango da.

## 3. Esparru teoriko eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

### a. Jatorria-helmuga

Migrazio proiektua prozesu bat da, migratzailea migrazioan pentsatzen hasten denetik ibilbidea amaitzen duen arte, hau da, migratzaileak jaioterrira itzultzea erabakitzen duenean amaituko litzateke (Cheddadi, 2017). Inoren kargura ez dauden adingabeen migrazio-fenomenoaren berri lehen aldiz 1980 eta 1990. urteen artean izan genuen bai

Europar (Ruiz, Palma eta Vives, 2019) baita Espainian zein Euskal Autonomia erkidegoan ere. 1990. urte amaieran eta 2000. urtearen hasieran izugarritzko gorakada gertatu zen Estatu Espainolean (Mendoza eta Belarra, 2015); Euskal Herrian, berriz, gorakada hau 2001-2002 urtetik aurrera jazo da, hau da, Espainian baino bi urte beranduago (Blanco, 2008). Migrazio-fluxuaren kopurua beti gorabeheratsua izan arren, orokorrean goranzko joera izan du. Hala ere, bolada batzuetan etorreren kopuruaren beherakada eman da, 2008ko krisi ekonomikoarekin batera migrazioen geldialdirako edo murrizketarako joera gertatu zen (Barba, 2019). Hemendik aurrera etorreren joera goranzkoa izan da, esaterako, Vinaixak dioenez (2019), 2016an eta 2017an bakarrik dauden adingabeen kopurua %170 igo zen, hau, mediterraneoko beste bide batzuk ixtearen ondorioz izan zen. 2018an, zifra hori ia bikoiztu egin zen eta guztira 7.000 IKEDAM zenbatu ziren Espainian. Alabaina, adingabe hauen kopurua zenbatzeko arazoak egon ohi dira, batzuetan, akats ofizialak daude, adingabeen mugikortasun handia eta probintzia-ordezkaritzen arteko koordinazio ezaren ondorioz (Mendoza eta Belarra, 2015). Gainera, Morenok (2012) dioenez, muga operatibo eta estatistiko bat baino gehiago daude eta, zenbait kasutan, zifrek ez dute bat egiten. Aurretik aipatutako faktorez gain, fenomeno honen ezaugarri mediatikoak ere kuantifikazio eta datu-bilketa zuzen eta fidagarri baten osaketa zailtzen dutela dio.

Gazte hauen sexuari dagokionez, betidanik gehiengoak gizonezkoak izan dira, hala ere, Vinaixaren aburuz (2019), geroz eta emakume gehiago dira kolektibo honen parte. Adinari erreparatuz, adingabeak dira eta hauetako askok oso gazte ekiten diote migrazioari, gehiengoena 14 eta 17 urte artean kokatzen da. Nazionalitateari dagokionez, berriz, nahiko aldakorra izan da, Blancok (2008) dioenez 2000. urte inguruan atzerritar gehienak Europatik etorritakoak ziren, 2007. urtean, ordea, Hego Amerikarrak nagusitzen ziren. Gaur egun, gehientsuenak Marokotarrak izan arren, azken urteetan jatorri ezberdineko gazteak ere etorri izan dira, hala nola: Nigeria, Ghana, Malí, Senegal... (Garrido, 2019). Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiak (2020) dioenez, 2020. urtean afrikar jatorriko 51.359 pertsona zeuden, hauetatik gehiengoa, Marokotik, Aljeriatik eta Senegaletik etorritakoak eta Bilbon bizi ziren.

Hainbat dira gazte hauek migrazio prozesu bat hasteko arrazoiak, horien artean, Epeldek (2017), Quirogak (2009) zein Ruizek, Palmak eta Vivesek (2019) diotenez arrazoi nagusia ekonomikoa da, hau da, aukera ekonomikoak bilatzeko intentzioarekin etortzen dira. Beraien helburua Espainiara etortzean lan-merkatuan sartzea da, horrela familiak jatorrizko herrialdean duen egoera eskasari aurre egiten laguntzeko. Honez gain, Quirogak eta Sóriak

(2010) azaltzen duten moduan beste arrazoi batzuk ere badaude, esaterako: itxaropen kultural eta sozialak hobetzea; arrazoi politiko, etniko eta erlijiosoengatik ihes egitea (errefuxiatuak); familia-egoera (gurasoen jazarpenetatik) edo gatazka batetik ihes egitea. Morenok (2012) dioenez, azken urteetan, Marokotik datozen adingabeen kasuan, familia-izaerako migrazio-prozesua bultzatzearen aldeko apustua egiten ari dira. Prozesu honetan lekualdatzen den pertsona adingabea da, horrela, iritsitakoan, adingabea erakunde publiko baten babespean egotea lortuko da eta errazagoa izango da beharrezko denbora igaro ondoren, eta baldintzak betez gero, bizileku-baimena lortzea. Migrazio prozesua egiteko modu ezberdinak daude, hasiera batean, kamioi azpitan edo barruan etortzea zen ohikoena, baina 90.hamarkadatik aurrera pateretan ere etortzen hasi ziren, batez ere, Nigeria, Ghana, Malí, Senegal... jatorria duten adingabeak (Garrido, 2019).

Gaur egungo gazteen migrazio prozesuaren helmuga Europa izan ohi da, komunikabideek “amets Europarraren” inguruko irudi soziala sortu dutelako. Espainaren kokapen geografikoak, hau da, hurbiltasunak eta migrazio-aurrekarien kontakizunek sustatzen dute (Garrido, 2019). Horregatik, Afrikako biztanleriaren zati batentzat Espainia Europara sartzeko migrazio-prozesuaren lehen helmuga da (Ikuspegi., 2020). Hori dela eta, Vinaixak (2019) dioenez, gaur egun, Andaluzia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Katalunia, Madril eta Valentziako Autonomia Erkidegoa dira IKEDAM kopuru handiena jasotzen dituztenak. Andaluziaren kasuan, datu hauek normalagoak dira, azken finean, hau da Europara sartzeko gertuen duten lurraldea. Morenoren (2012) aburuz, inoren kargura ez dauden gazte migratzaileentzat EAE ez da lehen etorrerako autonomia-erkidegoa, baina bai lehen ezarpen-erkidegoa. Epelderren (2017) arabera, hona iristen diren adingabe migratzaileak berariaz etortzen dira. Hau Morenok (2012) azaltzen duenaren ondorioz izan daiteke, berak aipatzen baitu EAE-n dagoen harrera-sarea eta foru-aldundiek eskaintzen dituzten gizarteratzeko baliabideak beste autonomia-erkidego batzuetakoak baino handiagoak eta hobeagoak direla; beraz, esan daiteke, autonomia erkidego honek haurrei arreta onena ematen diela. Horren ondorioz, Espainiako beste leku batzuetan zeuden IKEDAMak zein beraien jaioterrian zeudenak zuzenean Euskadira etortzea erabakitzen dute; hau, gazteen zein helduen migrazio-sareetan zabaldu den zurrumurrugatik izan da.

#### **b. Adin txikitasuna**

Aurretik aipatu bezala, azken urteetan migrazio prozesuetan gehien nagusitzen direnak adingabeak dira. Hau, Ruizek, Palmak eta Vivesek (2019) dioten moduan, Espainiako legediak, eskaini behar dien babesegatik izan daiteke. Hau horrela izanik, adingabeek babes

minimo bat izango dutela ziurtatuta dute, horregatik, gazte hauek migrazio-prozesu bat hastearen erabakiaren atzean euren familiak daude. Familiak funtsezko zeregina du erabakian, bertan bi egoera ezberdin daude; alde batetik, migrazio-proiektua familia-estrategiaren parte bilakatzea, adingabea babesteko, familiaren egoera hobetzeko edo adingabearen etorkizuneko inbertsio gisa, familiko kideek beraien seme-alabak bidaltzen dituzte. Bestetik, emigratzeko erabakia erabaki indibidual bat denean, familiak uko egiten dio adingabeak horrelako migrazio-prozesu batek dakartzan arriskueta sartzeari, adingabeak bere jatorrizko herrialdean kalean bizitzeko ohitura zuelako eta erabaki horri buruzko iritzia eman zezakeen familiarik ez zegoelako (Garrido, 2019).

Inoren kargura ez dauden adingabeentzako babes-sistemari dagokionez, gazte hauen etengabeko kopuruaren handitzeak, harrera edo babes-sistema hori erabat gainditu du, eta gaur egun, Espainiako Gobernuak zein kolektibo horretako kideak hartzen dituzten autonomia-erkidegoetako gobernuak gizarte-gaietan duten eronketako bat bihurtu da (Vinaixa, 2019). Autonomia-erkidego bakoitzak bere harrera-sistema dauka, EA Eren kasuan, inoren kargura ez dauden adingabeak Euska Herrira iristen direnean, normalean, denak Amorebieta-Etxanon kokatzen den zentrorra eramaten dituzte. Ondoren, hemendik, beste zentro batzuetara bideratzen dituzte; zentroa erabakitzeko garaian kontuan hartzen dituzten baldintzak, gehienbat, gaztearen jokaera eta zentroko okupazioa dira.

Harrera etxe edo zentro hauek ezaugarri amankomunak dituzte, lehenengoa, atzerritar adingabeentzako babes-sistemaren parte direnez, bertan, nazionalitate ezberdineko atzerritar adingabeak soilik aurkitzen dira. Barbak (2019) dioen moduan, zentro hauek herri txikietan, baztertutako auzoetan edo hirietatik urrun dauden lekuetan kokatzen dira. Beste alde batetik, bertan, arauak, ordutegi zehatzak eta betebeharrak dituzte; arau hauek erakunde baten esku dagoen diziplina-diseinutik abiatzen dira eta adingabeen bizitzako alderdi guztiak arautzen dituzte: irteera, otordua, higiena, arropa, hezitzaileen aurrean komunikatzeko hizkuntza etab. Horrez gain, zentro bakoitzak gazteekin egiteko dinamika edo tailer ezberdinak dituzte: gaztelera ikasteko klaseak, sukaldatze klaseak... Azken urteetan, zentruetan dauden gazte kopuruaren masifikazioak eta egoera honi aurre egiteko errekurtso gutxiegi egoteak, horien artean hezitzaileak, tentsio eta gatazka egoerak sortu ditu (Oyarbide, 2019).

Harrera etxe hauez gain, jarrera ona duten adingabeentzako Foru Aldundiaren tutoretzapeko pisuak daude. Etxe hauek hiriguneetatik gertu kokatzen dira, etxe bakoitzean 4-5 pertsona daude, kopurua nabarmen txikiagoa da adingabeen zentroekin alderatuta. Hauetan

adingabeek askatasun gehiago dute, hezitzaileak bi egunez behin edo gehienez egunean behin doaz, ordutegiak ere ezberdinak dira, etxeratzeko garaia dute, baina hauek ez dira hain mugatuak. Horrez gain, gazteek beraiengan ardura gehiago dituzte, diru amankomunaren zein bakoitzaren kudeaketa, jatorduak prestatzea, etxeko garbiketa, elikagaien erosketa, etab. (Oyarbide, 2019).

### c. Adin-nagusitasuna

Gazte hauek adinez nagusi bihurtzean, babes sistema horretatik at geratzen dira egun batetik bestera. Honek, babes-sistema horren barruan egoteagatik zituzten laguntzarik gabe geratzea suposatzen du. Beraz, adinez nagusi bihurtzean, gazte hauek zer egin behar duten edo nora joan behar diren pentsatu behar dute. Behin 18 urte betetzen dituztenean, Bizkaiko Foru Aldundiak gutun bat bidaltzen dio adingabeari, bertan, adingabe horren tutoretza izatez uzten duela adieraziz. Gutuna jaso bezain laister, gazteak momentu horretan aurkitzen den etxebizitza edo zentroa utzi behar du (Oyarbide, 2019).

Gazte hauek adin-nagusitasunean dituzten laguntzak nahiko murrizak dira, hauen artean dago Bizkaiko Foru Aldundiak 2018. urtean martxan jarri zuen *Estrategia Jóven* izeneko programa. Gazte Estrategia hau, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren arabera (2018), haurren babes zerbitzutik datozeinei edo bazterketa baloratzeko tresnaren bidez gizarteratze-zerbitzuetan sartzen direnei, eta adinez nagusi diren eta egoera zaugarrian dauden gazteei zuzenduta dago. Laburbilduz, esan daiteke, gazte estrategia hau familia estaldurarik ez duten, gizarte sare urria duten edo lotura oso prekarioak dituzten 18 eta 23 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoela. Programa hauen baitan dauden elkarte gehienak diru laguntzak ematen dituzte, beste batzuk, berriz, pisuak dituzte. Pisuen kasuan, 300 plaza inguru daude (Departamento de Empleo, 2018).

Gazte hauek adinez nagusi bihurtzean, aukera ezberdinak dituzte, alde batetik, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako programa dago. Bestetik, aurretik aipatutako *Estrategia Jóven* programa aurkitzen da, honen baitan gazte migratzaileentzako soilik diren zenbait programa dago. Hauen artean, alde batetik, *Hemen* egitasmoa dugu, bertan intentsitate txikiko laguntza (izapideak eta aholkularitza) eskaintzen zaie urtebete baino gutxiagoko tutoretza duten edo urtebeteko tutoretza izan arren, pasaporte adin-nagusitasunetik 5 hilabete igaro ondoren lortzen ez duten inoren kargura ez dauden adingabe ohiei. Estrategia honen barnean eguneko zentroak aipatu daitezke, gaur egun, Zubia (Izangai), Aktibate (Etorkinekin bat) eta Dahilo (ADSIS) daude. Zerbitzu hauek intentsitate txikiko laguntza eta intentsitate handiko plaza batzuk eskaintzen dituzte, urtebete baino gehiagoko tutoretza duten gazte ohientzat,



guztira, 2 pisu dituzte eta bakoitzean zazpi plaza (Peñascal Kooperatiba, 2020). Bestalde, gazte hauek duten beste aukeretako bat enplegu-programa da, hau lanbide tekniko batean prestakuntza-ibilbide luzea duten eta epe laburrean lan-merkatuan sartzeko aukera ematen dien administrazio egoeran dauden gazteentzako programa da (Peñascal Kooperatiba, 2020).

Azkenik, Peñascal Kooperatibak (2020) bideratzen duen *Bidean lantzen* izeneko proiektua dago, gazte hauek haurtzaroko babes-sistematik ateratzean, beste programa batera igarotzeko itxaronaldian laguntza administratiboa eta aterpea eskaintzen diena. Honen helburua Bizkaiko Foru Aldundiaren programa eta zerbitzuetara sartzeko atzerapenak edo hauek gazteengan eragiten dituzten ondorio negatiboak arintzea da. Gazte hauek adingabeen zentroetan edo tutoretzapeko ematzipaziozko pisuetan daudela, 18 urte bete baino hilabete bat lehenago, *Bidea lantzen* proiektuan alta ematen zaie. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak gazte hauentzat dituen proiektu ezberdinek balorazio-tresna amankomuna dute, bertan, gazte bakoitzak zer ibilbidean parte hartuko duen ezartzen du. Plaza bat esleitu arte itxaroten duten bitartean, *Bidean lantzen*-ek artatzen ditu. 2020ko irailetik, haurtzaroko babes-sistematik bideratzen dira bai *Hemen zein Estrategia Jóvenera*. *Bidea lantzen*ek soilik Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna sustatzeko sailak plazaren zai dauden pertsonen zerrendan dagoena artatuko du.

Peñascal Kooperatibak, inoren kargura ez dauden baino jada adinez nagusiak diren eta bizileku zaurgarritasun egoeran aurkitzen diren gazteentzako beste programa bat eta aterpetxe bat dauka. Aterpetxe zerbitzua Bilboko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bitartez dute, bertan 20 leku dituzte. Bestalde, *Teilapean* izeneko proiektua dute, hau gizarte eta lan integraziozko prozesuaren parte den eta banakakoen harrera lagundua egitean oinarritzen den proiektu pilotua da, honek gazte hauen prestakuntza bultzatu nahi du. Horrez gain, egoitza dela eta zaurgarritasun egoeran dauden eta etorkizuneko lan-prozesua egiten ari diren gazte atzerritarrei laguntzea da jomuga. Proiektu honetan beste elkarte batzuekin elkarlana egiten dute. Hiru harrera-modu ezberdin dituzte: lehenengoa, jatorrizko komunitateko pertsonekin partekatutako pisuak dira. Bigarrenik, unibertsitateko ikasle autoktonoekin partekatutako pisuak daude (Agintzari elkarteak kudeatutakoa). Azkenik, belaunaldi ezberdinetako pertsonekin partekatutako pisuak daude. Egitasmo honen helburu nagusia da gazte hauei osotasunezko esku-hartze batetik egoitza bat eskaintzea, beren prestakuntza, enplegu eta gizarteratze komunitarioko prozesua garatzen dituzten bitartean (Peñascal Kooperatiba, 2020).

Peñascal Kooperatibaz gain, Itaka Escolapios-en *Epeletan* eta *Aukera* izeneko proiektuak daude. Lehenengoa aterpetxe bat da eta bestean, 18 eta 23 bitarte dituzten gazte migratzaileentzako pisu tutelatuak daude. Azkenik, *Harrera* izeneko programa dago, hau Cruz Roja eta Izangaik eramaten dute. Biek intentsitate txikiko pisuak eskaintzen dituzte, pisuetan sei hilabetez egon daitezke eta ondoren 3 hilabetez alokairua ordaindu behar dute (Peñascal Kooperativa, 2020).

Bilboko Udalak (2021) beraien kabuz oinarrizko beharrak asetu ezin dituzten pertsonei, horiek bermatzeko oinarrizko prestazioak eskaini eta erregulatzen ditu, hala nola,aldi baterako ostatua, elikagaiak eta jantziak. Programa honetan, zehazki, gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa, balorazioa eta aholkularitza ematen zaie erabiltzaileei. Horrez gain, gizarte-babeserako beste sistema batzuen mendean dauden zerbitzuetara ere bideratzen dituzte: osasun-zerbitzura, judizialera, hezkuntzakora, lanekora eta pentsioetakora. Zerbitzu hau jasotzeko Bilbon bizi, adinez nagusia izan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoa baino diru-sarrera txikiagoak jaso, eta baliabideen araudia eta funtzionamendua zein den jakin eta errespetatu behar dituzu. Aurrez aipatutako betebeharrak orokorrean gain, zerbitzu bakoitzak bere baldintzak dauzka.

Bideratzen dituzten zerbitzuen artean, honako ostatu hauek daude: Elejabarriko Udal aterpetxea, Gauko Ostaturiko Udal zerbitzua, Lagun Artean, Hontza gaueko zentroa eta neguko aterpeak. Janaria eskaintzen duten errekurtsuen artean, Siervas de Jesús, Damas Apostólicas, San Antonio de Irala eta Conde de Aresti daude. Azkenik, jantzien inguruan Kooperera Store daukagu (Bilboko Udala, 2021).

Gazte hauek hainbat ez da aurretik aipatutako programa edo laguntzetara sartuko, beraz, bizitzeko, baina, batez ere, gaua pasatzeko, lekuak bilatu beharrean daude. Horrelako egoeran aurkitzen diren gehienak, zubi azpitan, kasu honetan, Euskalduna zubiaren azpian, kartoi, xafla eta oihal batzuekin etxola moduko bat eraiki eta bertan igarotzen dute gaua (Hermosilla, 2021). Baina hau ez denez legala, udaltzainek bertatik joateko agindua ematen diete, orduan, gazte hauek, lo egiteko leku berri baten bila hasi behar dute. Egile honen arabera, horrelako kasuak oso ohikoak izaten dira Bilbon.

Gazte hauek adingabeak babesteko sistematik ateratzen direnean zailtasun handiak izaten dituzte bizileku-baimena berritzeko, etxebizitza-baliabideak eskuratzeko edo lan-kontratu bat lortzeko. Legezko egoerari dagokionez, bi egoera ezberdinetan aurkitzen diren gazteak topa daitezke. Alde batetik, babes-sisteman dauden bitartean bizileku-baimena lortu dutenak eta

adinez nagusitasunera iristean hau berritu egin beharko dutenak eta bestetik, adinez nagusitasunera iristean bizileku-baimenik lortu ez dutenak. Lehenengo kasuan, aldi baterako bizileku-baimena berritzeko eskatu beharko dute, hau gehienez bi urtekoa da. Baimen hau lortzeko eta mantentzeko, baliabide ekonomikoak, erakunde publiko eskudunek egindako txosten positiboak eta Espainiako gizartean duten txertatze-maila (lan-eskaintza edo kontratu bat izatea, ikasketekin jarraitzea edo Estatuko hizkuntzen ezagutza-maila) aintzat hartuko dira. Bigarren kasuan, gaztearen tutoretza izan duen erakundearen gomendioa beharko da aldi-baterako bizileku-baimen berezi bat lortzeko. Baimenaz eta gazteak aurkeztutako eskabideaz gain, bizileku-baimena mantentzeko nahikoa baliabide ekonomiko dituela egiaztatu beharko du, lan-kontratu bat duela edo bere kontura jardura bat hasi duela erakutsiz (Garrido, 2019).

Gaur egun, Pedro Sánchezen Gobernuak inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileei eta jada adinez nagusi diren gazte hauei egoitza-txartela lortzeko ezarritako baldintzak murriztea proposatu du (El Diario, 2021): egoitza lortzeko ezarritako epeak eta baldintza ekonomikoak murriztuz, lan-merkatuan sartzeko laguntza emanez eta bizileku-baimenen indarraldia handituz. Hala ere, orain arte azaldutakoa Atzerritarren Araudiaren erreformaren zirriborroa da, beraz, honen onarpena ikusteke dago.

Orain arte aipatutakoarekin ikusi daiteke, inoren kargura ez dauden adingabeak 18 urte betetzen dituztenean zailatsun askorekin aurkitzen direla eta oso zailak diren egoerekin egiten dutela topo. Batzuek aurrera egiten dute, beste batzuk, berriz, bidean geratzen dira. Azkenekoaren adibide da Donostian, Eusko Jaurlaritzaren tutoretzapeko etxe batean zegoen eta 18 urte bete berri zituen gazteak bere buruaz beste egin izana (Argia, 2021).

#### d. **Gizarteratzea**

Gizarteratzea Blancok (2001) azaltzen duen moduan, pertsonen bizitzaren alderdi ezberdinak bere baitan hartzen dituen prozesua da. Beraz, kontzeptu hau hainbat dimentsiotan banatu daiteke, Solék (2002), bi dimentsio nagusietan banatzen ditu: maila sozioestrukturala eta maila soziokulturala. Lehenengo dimentsioak, alderdi sozio-ekonomikoa hartzen du bere baitan, kasu honetan, lan-merkatuan sartzeari egiten dio erreferentzia. Beste dimentsioan, alderdi soziala (pertsonen harreman sarea), kulturala (jarraibide kulturalak, tradizioak, ohiturak eta hizkuntza) eta identitatearena (errekonozimendua, identifikazioa eta kide izatearen sentimendua) daude. Autoreek (Sóle et al. 2002) aipatzen ez duten arren, Epeldek (2017) dimentsio juridikoa maila sozio-estrukturalaren barnean sartzea egokitzen jotzen du IKEDAM ohiak gizarteratzeko orduan beharrezkoa delako. Hain zuzen ere, legez

erregularizatutako egoera batean egotea beharrezkoa izango da egonkortasuna lortzeko, baita gizarteratzeko gainontzeko dimentsioak eskuratzeko aukera gehiago izateko ere. Batez ere, aipatu den moduan, lan-merkatuan sartzeko beharrezkoa izango dute, baita bizileku-baimena lortzeko orduan ere. Beste alde batetik, Ruizek, Palmak eta Vivesek (2019) gizarteratzearen kontzeptua inoren kargura ez dauden adingabeak adinez nagusi bihurtzen diren trantsizio horretatik azaltzen dute. Hauen hitzetan, gizarteratzea, baliabideak eskuratzeko eta helduaroan erabat integratzen laguntzeko behar den gizarte-laguntzako prozesu gisa ulertu behar da.

Gazte hauen gizarteratzea nolakoa den aztertuz gero, ikusi daiteke, Subiratsek (2004) dioen moduan, tradizionalki lan-merkatuan sartzearekin estuki lotuta egon dela, enplegua hartu baita gizarteratzearen mekanismo nagusizat. Horregatik, beti lanpostu bat lortzea helburu duten politika eta zerbitzuak bultzatu dira. Enplegua lortuz gero, gizarteratzearen bi dimentsio nagusiak eskuratuko lirateke: hasteko, alderdi sozio-estrukturalaren barnean sozio-ekonomikoa, lan-merkatuan sartu direlako; horrez gain, juridikoa ere, enplegua izatean, legez erregularizatuta egotea lortuko dutelako. Bigarrenik, alderdi soziokulturalaren barnean, soziala, lankideak osatuko dutelako beraien harreman sarea; kulturala, laneko ordutegiak eta lankideetatik autoktonoak diren ohiturak eta hizkuntza bereganatzen joango direlako eta azkenik, identitatearena, lan-taldearen parte sentitzen eta identifikatzen direlako.

Gazte hauek adingabeak direnean gizarteratzeko aukera bakarra ikasketa eta aisialdiaren gunetan parte-hartzea da. Bertan, autoktonoak diren gazte gehiagorekin bat egin eta hauekin harremantzeko espazioak direlako. Adinez nagusi bihurtzen direnean pertsona autoktonoekin sozializatzeko aukera gehiago irekitzen zaizkiela esan daiteke, aurretik aipatutako gunez gain, lan-merkatuan sartu daitezkeelako eta hirugunetatik at kokatzen diren zentroak uzten dituztelako, zorte handiarekin, hiriguneetan dauden emantzipaziozko pisuetan sartuz. Beraz, esan daiteke, gazte hauen gizarteratzeko bide errazena aisia, ikasketak eta lan-merkatuan sartzea direla.

Kolektibo honen gizarteratzea posible izan dadin, beharrezkoa da pertsona autoktonoek hauenganako jarrera positiboa izatea eta hauek hartzeko prest egotea. Morenok (2012) EAEn egindako ikerketan ikusi daiteke jendarteak gazte hauenganako duen jarrera negatiboa dela. Hala ere, adina, ikasketak, nazio-nortasuna, ideologia edo egoera ekonomikoa bezalako aldagaien araberakoa izango da migrazio-fenomenoari buruz egiten den balorazioa. Hauek ez

ezik, delituen gorakada bat gertatzeak eta komunikabideetan arau-hausleei buruzko albisteak agertzek ere balorazio negatibo hori elikatzen dute gazte hauen estigmatizazioa eraginez.

Ondorioz, aurretik aipatu ditugun gazte hauen gizarteratze guneetan, arrazakeria jokaerak gertatzen dira, esaterako, Barbak (2019) dioen moduan, taberna eta diskoteketan ohikoak dira horrelako jarrerak, batez ere, marokoar gazteenganako diskriminazioa, adibidez, horrelako guneetako sarbidea ukatzea. Bestalde, marokoar gazteek poliziaren aldetik sarritan jasaten dituzte identifikazio eta miaketak, Barbaren (2019) aburuz, diskriminazioa handiagoa da gazte marokoarren taldea denean edo hauen aurpegiko ezaugarriak nabarmenagoak direnean. Horrez gain, zentroetan sortzen diren gatazken inguruko albisteek gizartean alarma soziala piztu dute, gazte hauek estigmatizatuz. Hortaz, Epeldek (2017) dioen moduan, egoera honek gazteak gizarte hartzailearen parte gisa identifikatzea eta, aldi berean, gizarteak gazte hauek bere parte gisa hartzea zailtzen du. Horregatik, gazte marokoar askok identitate-arazo handiak izaten dituzte, ez direlako jatorrizko gizartearekin ezta helmugakoarekin ere identifikatzen.

Hala ere, esan beharra dago, jarrera negatibo hauen beherakada gertatzen ari dela. Ikuspegik (2019-2020) jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzeptzio eta jarreraren bueltan egindako azken ikerketatan ondorioztatu dutenez, immigrazioa ez da euskal gizartearen arazo handietako bat. Osasun-krisiak eta haren ondorioek eragin handia izan dute euskal biztanleriak atzerritar jatorriko pertsonen iritsierarekiko duten tolerantzia-mailan. Atzerriko immigrazioarekiko dauden estereotipo faltsu eta negatiboek dagokienez, jarrera positiboa ikusten dute eta hauek gero eta babes sozial txikiagoa dutela aitortzen dute. Alabaina, jatorri atzerritarreko pertsonen talde batzuk, esaterako, magrebtarrak, oraindik ere estigmatizatu egiten dira. Gainera, euskal gizarteak atzerritarren gizarteratzeari dagokionez onartzen du ahalegina bertakoen eta atzerritarren erantzukizuna dela, baina, uste du, atzerritarrek ahalegindu behar dutela gure gizartean nagusi diren ohitura eta tradizioetara ohitzen.

## **2. Covid-19aren inpaktua migratzaileengan**

Gaur egun gazte hauei zuzenean eragiten dien bi arazo nagusi antzeman ditzakegu, alde batetik, 2020. urtean agertu zen eta oraindik jarraitzen duen Covid-19ak eragindako osasun krisia, eta bestalde, eskuineko ideologia politikoen eta hauek defendatzen dituzten alderdi politikoen gorakada.

Lehenengo arazoari erreparatuz, Covid-19a Munduko Osasun Erakundeak (MOE, 2020) azaltzen duenez, SARS-CoV-2 izeneko koronabirusak eragindako gaixotasuna da. MOE-k 2019ko abenduaren 31n izan zuen birus horren berri lehen aldiz Wuhanen (Txina) agertu zen.

Euskal Herrian, Euskal Irrati Telebistak (2020) dioten moduan, koronabirusaren lehen kasua 2020ko urtarrilaren 24an igarri zen. Pandemia hau hainbat ondorio nabarmen ari da uzten mundu osoan zehar. Ondorio larri hauek gizarteko hainbat arlotan ari dira hautematen, agerikoena osasun (fisikoa zein psikologikoa) arloan izan arren, arlo ekonomikoan eta sozialean ere eragin larriak ari da izaten.

Argi dago gaixotasun honek, mundu osoko osasun-krisi bat ekarri duela, izan ere, osasun-sistemak kolapsatzeko eta miloika pertsonen bizitza mehatxatzeko gai izan da. Gaixotasun honen kutsapen abiadura azkarrak, osasun sistemaren gelditzea eragin du eta ondorioz, beste hainbat gaixotasun, ebakuntza eta abar alde batera uztera behartu ditu, Covid-19aren gaixoak lehenetsiz.

Sandínek, Valientek, García Escalerak eta Chorotek (2020) egindako ikerketaren arabera, Covid-19ak ondorio negatiboak izan ditu populazioaren buru-osasunean. Zehazki, gazteak bereziki zaugarriak direla aipatu dute, itxialdiak suposatu duen gizarte isolamenduarekiko beldurra dela eta. Arlo ekonomikoan izaten ari den efektua aztertzen badugu, ikusi dezakegu 2020. urteko martxoan pandemia kontrolatzeko asmoz ezarri zen itxialdiak eta osasun-sistemaren kolapsoak ekonomian izan duen eragina oso handia izan dela. Banco de Españak (2020) dioenez, Covid-19a eskala globalean zabaltzeak eta giza bizitzaren galera murrizteko hartutako neurriek, jarduera ekonomikoen eremu garrantzitsuak gelditzera eraman dituzte (ostalaritza, industria, eraikuntza, merkataritza, turismoa, aisialdia eta kulturaren sektoreak). Horrela, osasun-krisi globalak krisi ekonomiko globalari bidea zabaldu dio. Hala ere, koronabirusak ekonomian izan ditzakeen zenbait ondorio jada bizitzen ari garen arren, oso zaila da, oraindik ere, zehaztasunez, epe luzera izango dituen eraginak zebaterainokoak izango diren jakitea.

Espainiak azken urteetan migrazio-fluxuetan izan duen joerari erreperatuz gero, ikusi daiteke sarrera-fluxuen etengabeko igoera eta irteera-fluxuen beherakada; horrez gain, asilo-eskatzailen zifren zein Hegoaldeko mugatik itsasoz modu irregularrean iristen direnen kopuruen gorakada jazo dela. Etorreren gorakada hau 2018an hasi zen, Espainia Mediterraneotik migratzaileen sarbide nagusia bihurtu zenean, urte honetan atzeritik etorritakoen sarrerak %20 hazi ziren, 645.000 pertsona kopurura iritsiz, hau inoiz ezagutu den kopururik altuena da; hauetatik 560.000 pertsonak gutxi gora behera (%87) Espainiakoa ez zen nazionalitatea zuten. 2019. urtean sarrera irregular horiei eutsi zitzairen arren, 2018an baino ia %50 pertsona gutxiago iritsi ziren Espainiara (28.300) (Arango, Mahía, Moya

Malapeira eta Sánchez-Montijano, 2019). Gaur egun, 2021. urtean, joera honi eusten jarraitzen zaiola esan daiteke, eta Sousak (2021) dioenez, Kanariar uhartea Europara sartzeko migrazio-bide nagusia bihurtu da. Monreal eta Paredesen (2021) aburuz, 2020an, 2019rekin alderatuz gero, %29 igo zen etorrera irregularren kopurua. Migrazio mugimenduak hegoalderantz mugitu ziren: itsasoz eta lurrez (Ceuta eta Melilla) egindako sarrerak %70 gutxiago izan ziren eta itsasarteko bidetik iritsitako kopuruak ere beherakada nabarmena izan zuen, Kanariar Uhateetara iritsitako kopuruak, berriz, gora egin zuen. Hau 2019an hasi zen eta oraindik ere joera horrek jarraitu egiten du. Covid-19aren egoeraren ondorioz, Kanariar Uhateetara iritsi diren migratzaileak bertatik atera ezinik daude, horregatik, Espainiak migratzaileen iritsiera kudeaketan beste urteetan baino lasaitasun gehiago izan du, estatuko harrera-programetan presio txikiagoa izan duelako, hala ere, Kanarietako hainbat kolektibok (Asamblea de Apoyo a Migrantes, besteak beste) salatu duten moduan, hango egoera jasangaitza da, bereziki, “Las Raices” errefuxiatuen kanpalekuan (Monreal eta Paredes, 2021).

### **3. Metodologia**

Azterlan honen bitartez aztertu nahi da inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileek adinez nagusi bihurtzean aurkitzen duten egoera, baita gaur egun Covid-19ak nola eragiten dien ere. Horretarako erabiliko den metodologia kualitatiboa da. Aztertu beharreko gaia fenomeno soziala izanik, metodologia honek gaia sakontasunez aztertzei aukera ematen du. Egoera honetan aurkitzen diren edo egoeraren protagonistekin lan egiten duten pertsonen beraien ikuspuntu, jarrera eta portaeren inguruan modu sistematiko eta kontrolatuan galdetu zaie; horretarako sakoneko elkarrizketa ikerketa teknika erabili da (Juaristi, 2003). Sakoneko elkarrizketak egiteko bi hilabete behar izan dira. Guztira lau elkarrizketa burutu dira, 2020 azaroa eta 2021eko maiatza artean. Azkenik, datuen kudeaketa eta analisisa burutzeko, zein ondorioak idazteko bi hilabete behar izan dira.

### **4. Lanaren garapena**

#### **a. Ikerketaren helburuak**

Ikerketa honen helburu nagusia, gorago aipatu gisa, inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileek adin-nagusitasuna eskuratzean aurkitzen duten egoera zein den eta gaur egun Covid-19ak nola eragiten dien ikertzea da. Honez gain, bigarren mailako helburuak ere ezarri dira, horien artean, honako hauek aurkitzen dira:

- Gazte hauen jatorria zein den aztertzea.
- Migratzeko arrazoi nagusia zein den ikertzea.

- Migratzeko erabakia hartzera zerk bultzatu dien jakitea.
- Euskal Herria helmuga gisa zergatik hartu duten ikustatzea.
- Adinez txikikoak direnean dagoen babes-sistemak zer gabezi dituen eta honek adinez nagusi direnean nola eragiten dien analizatzea.
- Adinez nagusi direnean zer egoerarekin topo egiten duten, zein laguntza jasotzen dituzten eta zein arazo dituzten jakitea.
- Ezarritako sistemak gazte hauen gizarteratzea bermatzen duen eta pertsona autoktonoek prozesu horretan laguntzen duten ala ez aztertzea.
- Gaur egun Covid-19ak eta gorakada nabaria izaten ari den eskuineko ideologiak kolektibo honengan zer nolako eragina duen arakatzea.

#### b. Azterlana diseinatzea

Aipatutako helburu hauek lortzeko hautatutako metodologia kualitatiboa izan da. Ikerketa burutzeko metodologia hau aukeratu da analizatu nahi den gaia sakontasunez aztertzeko modurik hoberena delako. Metodologia kualitatiboak aztertu nahi den aztergaia esperientziaren arlotik ikertzeko aukera ematen du, hau da, ikertu nahi den egoera, hori bizi izan duten pertsonen ikuspuntutik arakatzea du xede. Metodologia kuantitatiboak “zer” galderari erantzun nahi badio, kualitatiboak ordea “zergatik” galdera erantzun nahi du (Juaristi, 2013). Kasu honetan, metodo hau erabiltzea egokiena da, ikerketa helburuak eskuratzeari begira, egoera hori bizi duten gazte zein profesionalek beraien bizi esperientziak azaltzeko aukera ematen duelako, ikerketa sakon eta osatu bat lortuz.

#### c. Egoera hautatzea, taldeak eta ezaugarriak

Ikerketa honetan aztertuko den kolektiboa inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileak izandakoak eta Foru-aldundiaren tutoretzapean egon diren, baina, jada, adin nagusitasuna lortu duten gazteak dira. Ikerketa hau kolektibo honen inguruan egitea erabaki da gizarte-bazterketa pairatzen duen kopuru handiko kolektibo zaugarri bat delako eta honen inguruan ez delako behar adina azterlan egin. Adin txikikoak direnean bizi duten egoera zein errealitatearen inguruko informazio eta ikerketa gehiago aurki daitezke, adinez nagusi bihurtzean, berriz, hauen inguruko pista galdu egiten da. Adinez nagusitasuna lortzean, oraindik ere, talde zaugarri bat izaten jarraitzen dute eta beharrezkoa da bizi duten errealitatea ikustaraztea. Burututako elkarrizketak Bizkaian egin dira eta guztira lau izan dira. Elkarrizketatuen artean, gai honetan hainbat ikerketa burutu dituen profesional bat, aurretik aipatu dugun kolektiboari eskaintzen zaizkien programetako batean lan egiten duen hezitzaile bat eta adinez nagusiak diren bi gazte migratzaile aurkitzen dira. Hurrengo taulan elkarrizketatu bakoitzaren profila argiago ikusi daiteke.



Taula 1. Elkarrizketatutako pertsonak adinaren, sexua, jaioterriaren, kategoriaren eta elkarrizketa burutu den ordenaren arabera banatua.

Erreferentzia	Elkarrizketatutako pertsona	Adina	Sexua	Jaioterria	Gaur egun aurkitzen diren lan-egoera
E1	Aditua	33	Emakumea	Gipuzkoa	Soziologoa eta gizarte langilea
E2	Gazte migratzailea	19	Gizona	Maroko	Elikagai industria batean lanean
E3	Gazte migratzailea	19	Gizona	Maroko	Ikasten
E4	Hezitzailea	23	Emakumea	Bizkaia	Peñascal kooperatibako <i>Bidea Lantzen</i> eta <i>Teilapean</i> proiektuetan lanean

Iturria: Neuk egina

Ikerketaren helburu nagusiari erantzuna emateko asmoz bi gazte migratzaileei elkarrizketa burutu zaie; izan ere, bi gazte hauek Foru-aldundiko tutoretzapean eta babes-sisteman egon ondoren, adinez-nagusi bihurtzean hilabete batzuk beraien kabuz aurrera atera eta gero, gaur egun, batak bere kabuz bizitzen jarraitzen du eta bestea, berriz, Caritas-ek inoren kargura ez dauden adingabe migratzaile ohientzako duen programan dago. Bi gazte hauei elkarrizketa egitea erabaki da aztertu nahi den errealitatea lehen pertsonan bizi dutelako eta informazio esanguratsua eta egiazkoa eskuratuko delako.

Bestalde, analizatu nahi den gaiaren inguruko bi aditu daude. Lehenengoa, Maddalen Epelde, soziologoa eta gizarte langilea. Honek, adingabeek zein arlo horretan lan egiten duten hezitzaileek emango ez duten beste ikuspuntu bat helarazi dezakeelako aukeratu da. Berak, gai honen inguruko ikerketa burutu du eta beraz, ikuspuntu zabalagoa eta kuantitatiboagoa dauka (jatorria, migratzaile kopurua, Euskal Herrian kolektibo honentzako dauden programa kopurua...). Horrez gain, elkarrizketa berari lehenengo burutzea egokiena izan zen berak ikerketa hau burutzeko baliagarriak izan zitezkeen zenbait idazle eta autorei buruzko informazioaren berri eman zezakeelako. Bigarrena, aldiz, Peñascal Kooperatibak gazte migratzaile hauentzat dituen bi proiektuetan (bidea lantzen eta teilapean) lan egiten duen hezitzaileari egin zaio. Berak, lehen pertsonan kolektibo honekin horren gertu jardutean,

kolektibo honi ematen zaien laguntzen inguruko ikuspuntu profesional ezberdin bat eman dezakeelako.

d. Datuak biltzeko tresnak deskribatzea

Ikerketan zehar datuak biltzeko erabili den teknikari dagokionez, metodologia kualitatiboaren baitan aurkitzen den sakoneko elkarrizketa erabili da. Juaristik (2013) seinatzen duen moduan, kanpo portaeren bitartez gizakiek euren jarrerei ematen dioten sakoneko esanahia ezagutu ezin dugunez, esanahi hori behar bezala eta bere sakontasunean ezagutzeko gizakiei galdetzean datza sakoneko elkarrizketa. Gehiago zehazteko, sakoneko fokotutako elkarrizketa ez-zuzenduak izan dira burutu direnak (Juaristi, 2003). Elkarrizketa modu ez-zuzenduan egin da, hau da, elkarrizketatzaileak gaiaren arlo ezberdinen inguruko galderak egin ditu, alde aurretik galderak zehaztu eta ordenatu dituen gidoi<sup>1</sup> bat erabiliz; hala ere, elkarrizketatuak izan dira elkarrizketaren abiadura eta noranzkoa eraman dutenak, beraien diskurtsoaren arabera galderak aldatu eta berriak sortzen joan dira. Honenbestez, elkarrizketatuak izan dira agindu dutenak.

e. Prozedura

Elkarrizketak egiteko erabili den prozedurari dagokionez, hauek bi modutara egin dira, presentzialki eta online moduan. Beti saiatu izan da, lehenengo aukera moduan presentzialki egitea, modu honetan elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen artean konfiantza gune bat sortzeko eta informazioa osatuagoa izateko aukera ematen duelako. Online moduan egitean, elkarrizketa hotzagoa bihurtzen da eta konexio arazoak sortzeko arriskua dago, ondorioz, konfiantza gune hori hausteko eta informazioa galtzeko aukera dago. Gaur egun bizitzen ari garen egoerak erabat zaildu du aurrez aurre elkarrizketak egitea. Horregatik, adituaren eta hezitzailearen kasuan egokiena online moduan egitea izan da; bi gazte migratzaileen kasuan, elkarrizketa aurrez aurre egitea nahiago izan dute, alde batetik, ez dituztelako online moduan egiteko beharrezkoak diren tresnak, ordenagailu bat esaterako, eta bestalde, beraiek elkarrizketa aurrez aurre egitean gusturago sentitzen direlako.

Egindako hizketaldi guztiak grabatuak izan dira bertan aipatutako informazio guztia galdu ez dadin. Elkarrizketak egin aurretik grabatzeko baimena elkarrizketatu guztiei eskatu eta baimen informatua ere guztiei bidali zaie. Horrez gain, elkarrizketa egiterakoan berriro ere grabatzeko baimena ematen zuten galdetu zaie badaezpada. Baimen informatuari<sup>2</sup> dagokionez, elkarrizketan azaldutako informazioa biltzeko eta erabiltzeko borondatezko

---

<sup>1</sup> (Eranskinetan ikusgai)

<sup>2</sup> (Eranskinetan ikusgai)

baimen agiria da. Dokumentu honetan, elkarrizketatzailearen datuak, burutu behar den proiektu edo ikerketako datuak, aurrera eramango den prozeduraren deskribapena, parte hartu behar duen pertsonak dituen eskubideak eta elkarrizketa grabatzeko baimena, besteak beste, azaltzen dira. Grabaketa tresna moduan mugikorra erabili da elkarrizketa guztietan, online egin direnen kasuan, ordenagailuek eskaintzen duten grabaketa aplikazio bat ere erabili da.

Gauzatu diren mintzaldiek izan duten iraupenari erreparatuz, guztiak ordu bete eta bi ordu arteko iraupena izan dute. Erabili den hizkuntzari dagokionez, elkarrizketatua gusturago sentitzen den hizkuntzan egin dira; adituarekin euskara izan da elkarrizketa gauzatzeko erabili den hizkuntza, beste hiru elkarrizketatuekin (bi gazte migratzaile eta hezitzailea), berriz, gaztelaniaz egin dira. Behin elkarrizketak gauzatura, hauek transkribatu egin dira, baina EHUKo ikerketaren etika batzordearen gomendioak jarraituz, baimen informatua erabili da eta elkarrizketatuen anonimotasuna babestu nahian, hauek ez dira lanean txertatu. Horrez gain, elkarrizketak egin diren hizkuntza mantendu da. Bertatik ateratako informazioa oso baliagarria izan da, landutako gaiaren inguruko arlo ezberdinez mintzatu da eta elkarrizketatuen jarrera zintzoa izan da; momentu oro egoera honen errealitatea zein den azaldu dute eta honekiko duten ikuspuntua zein iritzia eman dute. Beraz, honi esker, lortutako informazioa esanguratsua izan dela esan daiteke.

#### f. Bildutako datuak aztertzea

Atal honetan, elkarrizketen analisisa egingo da, hau da, elkarrizketetatik lortutako eduki nagusia aztertuko da, horretarako kategoria-sistema bat erabiliko da. Horrela, elkarrizketetan atera diren gai nagusiak eskuratuko dira, ondoren hauen interpretazioa eta ondorio batzuk ateratzea ahalbidetuz.

Elkarrizketak aztertu ondoren honako hauek dira atera diren gai nagusiak: gazte migratzaileen jatorria eta helmuga, adin txikikoak direnean sartzen diren babes-sistema, adin-nagusitasuna lortzean duten egoera eta laguntzak, gazte hauen gizarteratzea eta azkenik, Covid-19ak gazte hauengan izaten ari duen eragina. Hurrengo atalean gai hauek sakontasunez eta zehaztasunez aurkeztuko dira.

#### ● **Jatorria-helmuga**

Gazte migratzailearen gehiengo mutilak eta marokoarrak edo argeliarrak izan arren, Ghana, Malí eta Costa de Marfileko geroz eta adingabe gehiago etortzen dira (E3, hezitzailea). Adinez ere oso gazteetan etortzen direla ikusi da batipat. Elkarrizketatutako bi gazte atzerritarrak, marokoarrak dira eta hauek beraien migratze prozesua 15 urterekin hasi zuten,

bakarrik eta patera batean egin zuten bidaia. Horrez gain, hiltzeko duzun probabilitatean ez duzula pentsatzen aipatzen dute, etorkizunean baizik eta honenbestez, orain atzera begiratu eta bizi izan duten guztia kontuan hartuta ez zutela berriro egingo aipatzen dute.

Migrazio prozesuaren arrazoi nagusiari dagokionez, elkarrizketatutako gazte hauen kasuan ekonomikoa izan zen, jateko adina diru izan arren, etorkizunik ez zutelako ikusten alde egitea erabaki zuten: “Conseguir un futuro mejor para mí y para mi familia. Para poder ayudar a mi familia y para hacer aquí mi vida con mis hijos y todo” (E2, gazte migratzailea).

Hala ere, Euskal Herrian zegoen jendeak Europan etorkizun hobeago bat izateko aukera izango zutela baieztatu zieten, gazteetako baten anaia jada 2001etik Espainian aurkitzen zenez honek lagundu zion Espainiara etortzen eta ondoren, bere lehengusuari ere lagundu zion. Beste gaztearen kasuan, nahiz eta hemen ez izan familiakiderik, Espainian, berbere etniakoak diren helduen laguntza jaso zuela adierazi du: “Si, vino mi hermano de Algeciras y luego yo y un amigo mío y él nos llevó a Barcelona con él y tengo una hermana también allí. Estuve allí 15 días y dejé para venir aquí a Bilbao” (E2, Gazte migratzailea).

(...) pero he tenido suerte que en 20 días o así ya estaba En la línea. (...) Estuve en la línea una semana o así. Me cogieron un billete a Madrid y desde Madrid ya a las 15 estaba aquí. Hay algunos mayores Berebers que te compran la entrada para llegar a Madrid y luego le das el dinero y te compra el billete (E3, Gazte migratzailea).

Euskal Herria helmuga moduan aukeratzeko arrazoia ere ahoz ahokoa izan zela baieztatu dute, hau da, Euskal Herrian ezagunak edo familia kideak zituzten lehendik eta hauek bertan laguntza gehiago ematen dituztela aipatzeak bultzatu zien honaino etortzea.”Sí porque te dan muchas oportunidades para hacerlo y, pues eso, y encima si tus amigos también están aquí pues...” (E3, gazte migratzailea). Epeldek dioenez (E-1), Europara iristeko, lehenik eta behin Espainiatik igaro behar dira, hau da, normalean Espainia trantsizio gunea bat da. Beraien helmugaren arabera, beraien trantsizio gunea aldatu egingo da, esaterako, Frantziara heldu nahi badute Katalunian edo Valentziako Autonomia Erkidegoan geratuko dira.

Bueno en mi caso fue porque tengo amigos aquí. Y por ejemplo, pues, si me han dicho en Andalucía pues no tienes mucha oportunidad. Por Barcelona y el País Vasco ayudan mucho. Te dan un curso, te dan ayuda, no sé qué, pues, al final decides lo mejor. (E2, gazte migratzailea).

Ni gero ere, Marruekos bertan egon nintzen bi aldiz halako zentro batean (...) eta ba gazte hauek daude hortxe bilduta, bai gobernuak jartzen die pisu bat baina ez dago hezitzailerik, ez dago...dena oso oso prekariora da. Orduan, klaro beraiek dakitenean badagoela zentroak hezitzaileekin, janaria emango dietenak, arropa eta abar, ba horrek tira egiten die. (E1, Maddalen Epelde).

Hala ere, Espainiara iristean hau ez zen beraiek espero zuten bezalakoa, kontatu zietenaren eta ikusi zutenaren artean ezberdintasun handia zegoela baieztatu dute. Batez ere, Andaluzia eta Kataluinaren kasuan, bertan hobe bizi zirela pentsatzen zuten, baina hara iristean beste gauza batekin egin zuten topo. Euskal Herria hobeagoa dela pentsatzen duten arren, ez da beraiek uste zuten bezalakoa. “Bueno yo si te digo la verdad por Andalucía yo pensaba que iba a encontrar casas grandes y todo mucho mejor, pero no era para tanto”. (E2, Gazte migratzailea). “Si, el País Vasco es mejor pero no encuentras lo que te esperabas hasta que lo ves con tus propios ojos”. (E3, Gazte migratzailea).

Inoren kargura ez dauden adingabeen inguruko datu gutxi daude, autonomia-erkidego bakoitzak bere babes sistema dauka eta bertan aurkitzen diren adingabeen kopuruaren datuak bakoitzak helarazi behar ditu, baina hau batzuek ez dute egiten, beraz, Espainian inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren inguruko datu zehatzak jakitea oso zaila da. Honen arrazoa errealitate hura ezkutatzeke nahia da. Hau da, adingabe atzerritarren migrazio prozesuak ahoz ahokoaren bitartez funtzionatzen duenez, datuak ezkutatzean (zein errekurtso dituzten, zenbat dauden eta nongoak diren...) zurrumurru hori txikiagotu dezaketela pentsatzen da, adingabeak beraien autonomia-erkidegoetara joatea ekidinez.

Orduan horren atzean zer egon daitekeen? Ba errealitate hori ezkutatzeke nahia edo, azkenean, ba ya berez migrazioen gai hori gehiegi interesatzen ez den gai bat bada gazte hauen kasuan, badakigu adin-txikikoak izateagatik tutelatu behar direla, diputazioek badaukatela legalki zer esan bat eta orduan, zenbat eta gutxiago jakin gazte hauek, non emango zaien arreta eta abar ba hobe, ez dakit nola esan, diputazioek lan gutxiago egin behar edo ez dakit ez, horrela argi hitz egin da. (...) Errealitate hori apur bat estaltzeko, inork ikusten ez badu, inbisiblea bada, azkenean bere kabuz desagertzen da errealitate hori ez? (E1, Maddalen Epelde).

Horrez gain, gazte hauen migrazio prozesuaren hazkuntza ez da jarraitua izan, urte tarte batzuetan gehiago etorri dira eta beste batzuetan gutxiago. Honen zergatia estatu hartzailearen egoera ekonomikoa da. Hau da, alde zuzenetik aipatu dugun moduan (Barba, 2019), Espainiaren kasuan, 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioak nabarmentzen hasi zirenean etorreren kopurua jaitsi egin zen, baina ekonomiak berriro gora egitean berriz etorreren gorakada gertatu da.

Hasiera batean, MENA pilo bat etortzen ziren eta gero hor piko bat dago beheraka, 2012an edo. Hemen, krisiaren ondorioak 2008an beharrean izan zirelako pixkat beranduago. (...) Migrazio normalekin ere bai, herrialde batetako barne produktu gordinaren jarraipena egiten baduzu, ikusten duzunean (...) herrialde batzuk ondo doaztela ekonomikoki, normalean pikoa igotzen da etorkinena eta ekonomikoki erortzen hasten denean, etorkinen pikoa ere erortzen da. Orduan hori oso lotuta joaten da normalean. (E1, Maddalen Epelde).

- **Adin txikikotasuneko babes-sistema**

Elkarrizketetan atera den beste gaietako bat adin txikikoak direnean sartzen diren babes-sistemaren eta adin txikikoen zentroen gabeziak dira. Alde batetik, adin txikikoen zentroen kasuan, elkarrizketatutako bi gazteek Euskal Herrira iristean zentro batean sartuko zituztela bazekiten arren, ez zuten espero zentroa horrelakoa izatea. Beraien kasuan, lehenengo zentroa Amorebieta izan zen. Hau Bizkaira etortzen diren gazteak bideratzen dituen lehen zentroa da. Gazte hauentzako Amorebieta oso handia zen eta behar adina baino gazte gehiago zeuden bertan, ondorioz, borroka dexente eta denentzako lo lekurik ez zegoela aipatzen dute. Askok, lurrean lo egin behar izaten zuten. “(...) Te tiran un colchón en el suelo. Yo por ejemplo en las primeras semanas dormí en el suelo en los colchones que ponían y ya está” (E2, Gazte migratzailea). Orokorrean, bertan bizi izandako esperientzia txar moduan deskribatzen dute. Ondoren, Amorebietako zentroan hilabete inguru pasa ondoren, beraien jarrera eta adinaren arabera zentro handietatik zentro txikietara bidaltzen dituzte, adibidez, Izurza edo Orduña bezalako zentroetara eramaten dituzte. “Vas pasando las pruebas y si eres bueno pues te mandan a un centro mejor.” (E2, Gazte migratzailea). “Bueno yo en Amorebieta el centro no me lo esperaba así, la entrada era, cuando llegué había una pelea de los chavales y me sorprendió tanto y dije como tiene que haber esto. Pero te vas acostumbrando y ya está, pero si estás tranquilo y así te cambian” (E2, Gazte migratzailea). Zentro txikiagoetan gustorago egon zirela aipatzen dute, gazte gutxiago zeudelako eta orokorrean gainontzeko gazteekin zein hezitzaileekin erlazio hobea zutelako. Hala ere, aipatzen dute 2018. urtean gazte asko etorri zirela eta ondorioz, zentro txikietan ere behar adina baino gazte gehiago egon zirela, egoera zailduz. “Si yo fui a Izurza y ahí muy bien estábamos al principio 12 personas y estábamos bien, era una casa grande. Pero después en 2018 hubo mucha gente y nos trajeron a otros 12, entonces ahí la cosa iba un poco complicada” (E2, Gazte migratzailea). Horrez gain, zentroetan aurkitzen ziren gazte kopuru altuen ondorioz, bertan egiten zituzten jarduerak alde batera utzi behar izan zituzten, hauen artean gaztelania eta aisialdien inguruko jarduerak.

Bestalde, zentro hauen kokalekuari dagokionez, hauek hiriguneetatik at kokatzen direnez beti hezitzaileen menpe egon behar dute. Bertako arauen inguruan, nahiko gogorrak egin zaizkiela adierazi dute. Alde batetik, Marokon zuten bizimodutik hemen zuten bizimodura aldaketa handia sumatu dute, beraiek Marokon askatasun gehiagoz bizi ziren, nahi zutenean ateratzen ziren kalera, hona etortzean, berriz, zentroan sartzean hori galdu zutela aipatzen dute. Horregatik, hasiera batean zentroa gartzela moduan izendatzen duten arren, ondoren, bertako

arau eta ordutegietara pixkanaka moldatu eta gero, baliogarriak egin zaizkiela eta beraien onurarako izan direla diote. “Es bueno, los horarios que ponen son para ti, al final, son normas que son para ti para que te vaya bien en la vida y eso”( E3, Gazte migratzailea).

Al principio cuando no estás acostumbrado pues son duras, pero es que vienes con libertad de Marruecos, puedes salir a la calle a la hora que quieras y luego vienes aquí y parece como una cárcel así. Pero luego te vas acostumbrando, pero es bueno para aprender y así.(...) cuando estás ahí no lo valoras tanto, pero cuando estás ya en la calle, ves y después me ha servido de algo (E2, Gazte migratzailea).

Zentro hauetatik, jarrera ona izanez eta ikasketetan ondo joanez gero, adingabeentzako tutoretzapeko pisu emantzipatuetara igarotzeko aukera dute. Elkarrizketatuetako biak egon dira pisu hauetan, eta adingabeen zentroetik pisura igarotzearen aldaketa oso handia izan zela baieztatu dute. Pisuetan zentroetan baino askatasun gehiago dutela diote, nahiz eta arau eta ordutegiak izan, hauek malguagoak dira. Horrez gain, hauek normalean hiriguneetatik gertu kokatuta daude eta beraz, honek ere askatasun gehiago ematen die. Era berean, pisuetara igarotzen direnerako 17 urte inguru dituzte, hau da, denbora gutxiegi igarotzen dute pisuetan. Arrazoi hauengatik, zentroen aldean nahiago dituzte pisuak.

Hezitzaileekin izandako harremanaren inguruan, iritzi ezberdinak dituzte. Batak, zentroetako hezitzaileekin zuen harremana pisuetakoekin izan zuena baino hobetagoa zela dio, bertakoekin gehiago lagundu diotela eta gaur egun ere laguntzen jarraitzen diotela aipatzen du. Besteak, aldiz, aurretik aipatutako zentroetako gaitasun ondorioz, hezitzaileekin izandako harremana ez da pisuetakoekin izan duena bezain estua. “Por ejemplo en los de pisos pues te conocen más con el tiempo cómo somos pocos pues te conoce más. Te conocen como eres y así. Pero los centros si no estás mucho tiempo ahí, o unos años o así, pues no te conocen tanto. Hay tanta gente que es imposible conocer a todos” (E2, Gazte migratzailea). “Yo prefiero a los educadores de Orduña. Ahí por ejemplo cada cuatro personas tiene un educador y te apoya y te da consejos que tú necesitas y él también necesita. Los dos aprendemos” (E3, Gazte migratzailea). Hala ere, hezitzaile bakoitzaren araberakoa da hau, batzuekin oso ondo moldatu dira eta maitatuak sentitu dira, beste batzuk, berriz, erlaziorik ere ez zutela izan diote. Bestalde, babes-sisteman egon diren denbora guztian lagunduak sentitu direla uste dute, baina ez babestuak.

Elkarrizketatutako hezitzaileak dio berak lan egiten duen elkartera datozen gazte migratzaileen kasuan, askok autonomia falta izugarria dutela dio, hau nabarmenagoa da zentroetatik datozenen. Hala ere, zentro handien kasuan, horrenbeste gazte izatean, pertsona

bakoitza bere egoera administratiboaren erantzule egiten dietela aipatzen du, hau da, gazteak badakite zer egoera administratibotan dauden eta dituzten dokumentuak zein falta zaizkienak zeintzuk diren ere dakitela.

(...) yo creo que cuando vienen de pisos de emancipación tienen más conciencia de su situación y están como más responsables de sus cosas (...) pero, sí que es verdad, es que cuando vienen de pisos de emancipación se les ve como más, o, por lo menos que ponen más de su parte y tienen más iniciativa te diría yo. Pero también, depende, en el caso de los centros de menores de qué centro vienen, por ejemplo, Loiu qué es un centro de menores más grande cómo que les responsabilizan mucho y yo lo noto mucho (E4, Hezitzailea).

Elkarrizketatutako bi gazteek zentroek arduratsuak izateko balio izan dietela eta pisua, ostera, ordurarte ikasitako guztia praktikan jartzeko azterketa modukotzat deskribatzen dute. Hala eta guztiz ere, adingabeen babes-sistematik hainbat gauza aldatuko lituzketela aipatzen dute, hala nola: zentro eta pisu gehiago zabaltzea, laguntza gehiago ematea, hezitzaile gehiago kontratazea eta hauek administrazioko dokumentuekin laguntzea, gazteei gehiago informatzea, zentroetan klase gehiago jartzea eta arauak malguagoak izatea, besteak beste.

Sí abriría más centros para que así la gente estuviera más cómoda, más tranquila. Porque hay gente que es buena que viene gente maja y así, pero luego se juntan con gente mala, pues van por el camino malo. Pero si abren más centros y meten más educadores pues están más y estos están más centrados en los chicos. Porque imagínate antes estábamos en Amorebieta con seis educadores para 50 personas, no puede ser que salgan todos buenos (E2, Gazte migratzailea).

- **Adin-nagusitasuna**

Adingabe hauek adinez nagusi bihurtzean, hainbat gabezirekin egiten dute topo, hasteko, 18 urterekin adingabeen babes-sistematik ateratzen dira eta aurretik aipatutako desinformazio horren ondorioz, askok ez dakite zer laguntza dituzten, ezta nora joan behar diren ere. Zentroetatik *Estrategia jóven* izeneko programara bideratzen dituzte, hau Foru Aldundiak eskaintzen duen 2 urteko iraupeneko laguntza da. Berez, adingabe hauek 18 urte bete baino hiru hilabete lehenago, gazte hauen balorazio diagnostikoa egin behar dute ikusteko bakoitzarentzat zein errekurtso den egokien (intentsitate altu, erdi edo baxukoa); horretarako, item askotako elkarrizketa bat egiten diete. Baina, adierazi duten moduan, oraintxe bertan izugarrizko atzerapenarekin doazte eta, horren ondorioz, gazte hauek elkarrizketa hori gauzatzeko itxaronaldi horretan biziraun egin behar dute.

Elkarrizketatutako bi gazteen kasuan, bakoitzak bide ezberdina egin du. Batak, lehengusu bat hemen zuenez, berarengana jo zuen eta honen laguntzaz, Otxarkoagan dagoen Otxartabe izeneko areto-futboleko elkarteak hartu zuen. Besteak, aldiz, ez zuen horrelako zortea izan eta itxaronaldi horretan hiru lagunekin, sei hilabetez, txabola batean bizirautean egon zen. Ordura arte aurreztutakoarekin jatekoa erosten zuten hiruren artean.



Pues ahí en ese momento no sabía a dónde iba a ir, pues a la calle. Pero tengo un primo que está en pisos de una asociación de Otxarkoaga de fútbol qué pues si juegas con ellos y así, pues te llevan con ellos. Entonces, hablé con ellos y me dijeron que sí y pues ahí pues jugué con ellos el año pasado.(...) Luego volví y me dijeron que no había sitio y me llevaron a otro piso aquí en Otxarkoaga porque tiene muchos pisos (E2, Gazte migratzailea).

Yo la verdad es que muy complicado, estuve viviendo en una chabola seis meses con dos amigos y luego nos cogieron los de Otxarkoaga y los de Cáritas y nos llevan a un piso allí en Otxarkoaga y ya estuvimos ahí 15 días o bueno no sé. Y luego nos mandaron a un piso de aquí, cerca de aquí, como teníamos ayuda y así, pues, nos podemos pagar el alquiler y estamos viviendo ahí (E3, Gazte migratzailea).

Bizkaiko Foru Aldundiak balorazio diagnostikoekin duen atzerapena ikusita, *Estrategia jóven-era sartu aurreko denbora horretan zerbait egin behar zutela ikusi zuten*. Horregatik, Peñascal Kooperatibak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmen baten bidez, *Bidea Lantzen* izeneko programa abian jarri zuen. Honek, adin txikikoen zentroetan gutxienez urte bete baino gehiagoz tutoretzapean egon diren adinagusiak artzaten ditu. Aldiz, urte bete baino gutxiago egon badira Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapean, *Hemen* izeneko programara bideratzen dituzte, bertan Foru Aldundiak balorazio diagnostikoa egin arte egoten dira.

Empezó porque claro que pasa que en los centros de menores, salían del centro y nadie les atendía. No sabían qué hacer, había algunos que van a trabajadores sociales, otros a sus profesores, otros a nadie. Entonces se perdían como muchos chavales, entonces, Diputación optó, porque claro, Bidea lantzen lo mejor sería que no existiera porque Diputación se tiene que poner al día con las valoraciones. Los chavales 3 meses antes de que cumplan los 18 tenían que tener la valoración de la que te he hablado antes para que en el momento que cumpla los 18 vayan a un recurso. (...) El problema es que eso no es real y van con retrasos de... Si te digo, Cuando yo empecé en diciembre, se estaban haciendo las de febrero del año pasado, llevan un retraso de la hostia. Entonces claro, tiene que haber algo, tiene que haber programa o personas que les atiendan, pues ahí se formó Bidea lantzen (E4, Hezitzailea).

Bi programa hauetan, batik bat tramite administratiboak egiten dituzte:

(...) En Bidean lantzen hacemos trámites administrativos; cuándo salen de los centros de menores hay muchos que una vez a los 18 años pueden pedir el permiso de residencia inicial. Eso lo suelen hacer desde los centros de menores, pero nos vienen muchos que no, entonces, los facilitamos nosotros. Entonces, hacemos cosas de extranjería, luego también hacemos renovaciones de permisos de residencia, que una vez que pasa el año del permiso de residencia inicial pueden solicitar la renovación de residencia que son 2 años. Luego también, hacemos arraigos, los chavales que no tienen pasaporte una vez que hagan 18 años que no consigan pasaporte pasados los tres, tienen que ir por arraigo, qué significa que tienen que demostrar 3 años de residencia activa en España. Que, por ejemplo, eso sí tienen padrón durante los 3 años pues es muy fácil, pero hay chicos que no tienen padrón. Entonces hay que demostrar con, pues citas médicas, multas, cuando van cursos y cosas así. Y luego, permisos de trabajo al uso. Si los chavales encuentran un contrato de trabajo, un año que les paguen el salario medio interprofesional Y así, pues eso, hacemos el permiso de trabajo. (...) (E4, Hezitzailea).

Gizarteratzeko laguntza berezia, 30 hilabetetakoa da eta hau eskatzeko, tutoretzapekoen kasuan, 6 hilabeteko errolda izatea, Foru Aldundiaren tutoretzapean egotea, diru-sarrerarik ez izatea, beraien izenean ezer ez izatea eta 18 urte baino gehiago izatea beharrezkoa da. Nazionalitatea eskatzeko garaian, Foru Aldundiaren tutoretzapean egon diren gazteen kasuan, eskatzen zaizkien bete beharreko baldintzak hauek dira: 2 urtez adingabeen zentroan egon izana eta DBH izatea, hau da, Espainiako eskola-graduata aterata izatea; normalean gazte hauek lanbide-heziketa egin dutenez, honek nazionalitatea eskuratzeko balio izaten die. Eskatzen dizkieten dokumentuak eskuratzera erraza izan arren, nazionalitatearen kasuan behintzat, ebazpenak 4 urte iraun ditzake. Orokorrean, tramite administratiboak oso geldoak dira.

(...)El proceso de nacionalidad es tan largo porque los papeles y así son fáciles, pero las resoluciones de nacionalidad igual tardan 4 años. Es súper desesperante, el permiso inicial y el permiso de residencia eso tarda mucho. Esos son los que suelen tardar menos y si ahora mismo están tardando 3 meses en darles las respuestas y en denegar o no. Pero luego tienen que coger una cita para hacer lo de las huellas para que les dé la tarjeta en físico y pues, imagínate, si a alguien les dicen en enero que les dan el permiso, pues igual hasta marzo no consiguen una cita y luego, hacen todo, lo de las huellas y tal y tienen que esperar otro mes o así para coger una cita para que les den la tarjeta física. Los permisos de trabajo y así, tardan 3 meses en llegar una carta y en la carta pone inicio de procedimiento. En 3 meses se dará la resolución, otros 3 meses que tiene que pasar y así pues imagínate. Entonces muchas veces solemos hacer pedir antes de que se les caduquen los permisos y así. Claro, es que eso es lo que pasa, que cuando se les caducan entran en situación de irregularidad, entonces si ya lo hemos pedido antes en extranjería en vez de poner su estado en irregularidad, les ponen ya en proceso (E4, Hezitzailea).

Errekurtso honez gain, Peñascal Kooperatibak bi aterpetxe ditu, *Gerizpean* eta *Aterpe*, guztira 40 leku dituzte. 2019an aterpetxe bakarra zuten, baina gazte asko zeudela antzeman zutenenez beste aterpetxe bat zabaltzeko beharra ikusi zuten. Bertan, aste barruan, gaueko 21:00etatik goizeko 7:00rak arte eta asteburuetan goizeko 9:00rak arte egon daitezke. Gosaria eta afaria bertan eskaini arren, bazkaria beraien kabuz egin behar dute. Janaria, Peñascalek duen ostalaritza kurtsokoek egindakoa da, hau aterpetxe azpian kokatzen baita. Horregatik, bereizketa egiten dute Peñascalen ikasten dutenen eta beste ikastetxe batean ikasten duten gazteen artean. Peñascalen ikasten dutenek, normalean, ikastetxean bertan jangela izaten dute, beste ikastetxeetako kasuan, *Bidea lantzenetik* beraien ikastetxeekin kontaktuan jartzen dira hauei jangela eskaintzeko eskatuz, ez badute lortzen, ogitartekoak eskaintzen dizkiete. Aterpetxean dauden gazteen adin tartea 18-20 da. Tutoretzapean egon ez direnen kasuan, hauei “gazte helduak” deitzen diete, hau da, adin txikikoentzako zentroetan egondako adinez nagusiak diren gazteak dira. Gazte hauek *Bidea lantzenetik* ezin dituzte lagundu, azkenean *Estrategia jóven*-era joateko aurreko pausoa baita. Hauek, Peñascalek dituen

aterpetxeetan egon eta gizarte langileengana ere lagundu izan dietela aipatzen du Peñascaleko hezitzaieak:

(...)Les llamamos menores mayores. Qué son igual chavales que han estado en centros de menores siendo mayores porque ha habido algún problema de identificación. Y a esos no les podemos ayudar en Bidea lantzen. Les hemos tenido en el albergue, les hemos acompañado pues a la trabajadora social para que empiecen su proceso, porque, si no, están súper vendidos. Si no están oficialmente tutelados Bidea lantzen no les puede ayudar porque al final es como el paso a Estrategia jóven. Es que si les ayudamos a todos-todos hasta menores mayores es que luego es para nada, porque nosotros no podemos hacer mucho. La AEI-s no la pueden pedir porque Diputación pone ahí una traba. No se puede hacer mucho, permisos de residencia si pasan 3 meses de tener 18 y no tienen Pasaporte no pueden pedir permiso de residencia. Ves como muchas trabas (...) (E4, Hezitzailea).

Honez gain, gazte migratzaileen beste perfil bat dagoela adierazi du elkarrizketatutako hezitzaileak, osasun mentaleko arazoak dituzten gazteak. Hezitzaileak, horrelako arazoak dituzten lau gazteren erreferentziatzko hezitzailea dela aipatu du. Gazte hauek, *Bidea Lantzen* programan daude eta aterpetxean lo egiten dute, bere ustez, ez daude leku egokian, azkenean, hauek beste gazteek baino arreta gehiago behar dutelako eta nahiko dependenteak direlako. Ez dago errekurtsio nahikorik aniztasun funtzionala edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako.

(...) Tengo cuatro chavales que vienen con salud mental diagnosticada. Es que nos hemos visto un poco perdidos porque estos chicos salen de centros de menores y les tengo que ofrecer un albergue y ¿tú te crees que el mejor recurso para ellos es un albergue? Hay uno que es más autónomo, pero es que los otros son pues, qué son super dependientes, que están en seguimiento psiquiátrico. ¡Jolín! pues, esos chicos, sí desde los centros de menores tienen diagnóstico, porque a mí ya me llegan con diagnóstico, no sería más fácil hacer una derivación a un recurso de emancipación adecuado a estos chavales?(...) (E4, Hezitzailea)

Azaldutako errekurtsio hauez gain, Peñascal Kooperatibak, *Estrategia jóven*-en barruan, gazte atzerritarrei pisuak eskaintzen dizkien *Teilapean* izeneko proiektu bat du. Hau Covid-19aren kontrako neurri modura ezarri zen konfinamenduan sortu zen, orduan, kalean zeuden pertsonen aterpetxe bat eskaini zitzaien, Bilboko Udalaren finantziazioarekin. Konfinamendua pasa ondoren, gazteak berriro kalera joan ez zitezten, momentuan agintean zegoen alderdi politikoak egoera horretan zeuden gazteentzako beste errekurtsio bat sortzea erabaki zuen: *Teilapean*. Oraintxe bertan 18 pisu izan arren, ekainean, 20 pisuetara iristea aurreikusten dute. Pisu hauek erdi-autonomoak dira astean behin edo bi astez behin hezitzaileak joaten direlako.

Pisuak bi moduetara antolatzen dituzte; alde batetik, hartzaileak daude. Hauek, diru-sarrera propioak dituzten, gizarteratzeko laguntza berezia jasotzen duten, edo ordu batzuez lan egiten duten pertsonak dira. Hau da, diru-sarrera handirik ez duten baina logela bat ordaintzeko

adina diru duten gazteentzat da. Gazte hauek, alokairua ordaintzen dute, prezioa sinbolikoa da, banakako gela bada 185€ (gastuak barne, ura, argia, wifia) ordaintzen dute eta partekatua bada 135€. Bestalde, bekadunak daude. Hauek, Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen *Lehen urratsak* deituriko programaren barne daude. Proiektu hau 6 hilabetero berritzen doa, oraingoz, ekainerarte egongo da, ondoren berrituko dutela aurreikusten duten arren, oraindik ez dakite ziur zer gertatuko den. Eusko Jaurlaritzak, 40 gazteentzat 200€-ko bekak ematen ditu eta bekadunak *Teilapean*-eko pisuetan sartzen dira. Gazte hauek ez dute alokairurik ordaintzen, baina gastuak (ura, argia eta wifia) bai, guztira 35€ dira. Gastu hauez gain, denek jana erosteko astean gutxi gora behera 20€ inguru jartzen dute. Bekadunen kasuan, diruaren kudeaketa hezitzaileek egiten dute. *Teilapean*-en aurkitzen diren gazteen perfila *Bidea Lantzen*-ekin alderatuz gero, ezberdina da, pisu hauetan dauden gazteek Peñascalen ikasi behar dute eta ia denak errotuta daude, oso gutxik dute bizileku-baimena eta ia denak gazte helduak izandakoak direnez, zentroetatik kanporatuak izan dira.

Peñascal-ek eskaintzen dituen proiektuen helburu nagusiak gizarteratzea eta laneratzea dira, baina gehienbat laneratzea, azkenean, Peñascal ikastetxe bat delako. Horregatik, gazte hauen gehiengoa ikasten, lanbide-heziketaren edo Lanbideko ikastaroren bat gauzatzen dago, beste batzuk, berriz, praktiketan edo lanean daude. Ikasten ari direnen gehiengoa ostalaritza sektorean ari dira. Ostalaritzaren barruan, aukera asko dituzte: zerbitzari, kafetegi zerbitzua... Ondoren, beste asko sukaldaritza sektorean daude, hauek ere aukera ezberdinak dituzte: harategia, gozogintza... eta klima sektorea ere hainbat gaztek aukeratzen dute, bertan, klimatizazioa, elektrizitatea, iturgintza eta abar daude. Bi gazte elkarrizketatuen kasuan, bata jada lanean dago eta bestea oraintxe bertan praktiketan hasi berri da. “He estado estudiando mecánica y carrocería y ahora me han mandado a prácticas”( E3, Gazte migratzailea).

Luego he estado estudiando un curso de Carnicería (...) era un curso así de Lanbide de tres meses y luego me llevaron tres meses de prácticas y me cogieron.(...) Me hicieron unas prácticas con el convenio de Lanbide y cuando acabó la cuarentena cerraron mi contrato y allí estoy (E2, Gazte migratzailea).

Elkarrizketatuek, adingabeak izatetik, adin nagusiak izateko aldaketa hori oso gogorra izan zela diote; jana, lo lekua... izatetik, ezer ez izatera igarotzen baitira. Aldaketa honetan, abandonatuta sentitu dela dio batek. Horrez gain, gabezi handi bat ikusten dute administrazioko tramiteak egiteko garaian: adin txikikoak direnenan zentroetan dokumentazioa hezitzaileek eramaten dute eta zenbait gauza nola egiten diren ez diete erakusten. Orduan, 18 urte betetzean tramite asko nola egiten diren ez dakitela adierazten

dute. Arazo honen aurrean, beraiek adin txikikoei beraien egoera administratiboaren inguruan gehiago informatu eta hauen tramiteak nola egiten diren erakutsi beharko litzatekela azaltzen dute. Adin nagusitasuna bete zutenetik laguntza bat jasotzeko edo programa batera sartzeko denbora asko itxaron behar dutela aipatzen dute eta, beraz, beraien kabuz bilatu behar izan dituztela aipatzen du bietako batek.

El problema es que te dicen hemos mandado papeles a Diputación y esas cosas para que te ayuden y para que solicites la ayuda. Y esperas y por tanto esperar no te llega nada. A mí todavía no me ha llegado nada, llevo un año y medio o así y todavía no me ha llegado nada. Si no buscas tu... No vas a conseguir nada (E3, Gazte migratzailea).

Hezitzaileak lanean hainbat gabezi eta zailtasunarekin egin duela topo adierazi du, alde batetik, lan polita izan arren, oso gogorra dela dio. Azkenean pertsonekin lan egiten dute, beraien emozioekin eta bizipenekin. “Es que tenemos su vida en las manos, entonces me parece súper bonito y no lo cambiaría por nada, pero a mí me parece súper complicado”(E4, Hezitzailea). Bestalde, errekurtsioak ez dira dauden gazte kopuruarentzat nahikoak. Horrez gain, berak ere, elkarrizketatutako gazteek esan bezala, gazte hauek dituzten laguntzen, beraien egoera administratiboaren, honen funtzionamenduaren eta, orokorrean, beraien dokumentazioaren inguruan oso desinformatuta daudela adierazi du. Era berean, gazte hauen autonomian ere gabezi handia ikusten du, eta hau zentroetako zein adin nagusitasuna betetzean dituzten errekurtsioetako hezitzaileengandik sustatzen dela azaltzen du. Amaitzeko, egokiena *Bidea Lantzen* ez egotea izango litzatekeela dio, egin beharko litzatekeena, zentroetatik gazte hauek balorazio diagnostikoarekin ateratzea eta zuzenean beraien beharretara egokitutako errekurtsora joatea izango litzateke.

A veces también pegamos de mucho asistencialismo, de cuidar, de proteger que está muy bien, pero es que no somos madres de nadie, ni padres. Entonces, pecamos de asistencialismo y yo la primera, si puedo acompañar a esto tal, pues lo hago ¿no? jolín! Está muy bien, pero hay que volar solos (E4, Hezitzailea).

- **Gizarteratzea**

Gazte migratzaile hauen gizarteratze prozesua ere elkarrizketetan nabarmendu den gai bat izan da. Prozesua gazte hauek, Espainia zapaltzen duten momentuan hasten da, baina ez du amaierarik. Elkarrizketatuei norekin harremantzen diren galdetuz gero, gazteek zein hezitzaileak, gehienbat beraien artean ibiltzen direla aipatzen dute. Bi gazteek jende autoktonoarekin ere harremantzen direla diote, klasean edo aisialdian, biak futboleko jokatzeko baitute. Hezitzaileak, oster, gehiengoa beraien jatorri berdina duen pertsonekin harremantzen dela dio eta beraien artean taldeak sortzen dituztela, hala ere, aktiboak diren gazteak ere

badaude eta hauek Ongi Etorri Errefuxiatuak, Save The Children, Itaca eta horrelako elkarteek antolatutako ekimenetan parte hartzen dutenez, harreman sare handiagoa eta jatorri ezberdineko jendearekin harremantzen direla dio. Jende autoktonoarekin harremantzen direnak normalean, futbol taldeetan, boxeoa, eskubaloian... taldekako kiroletan parte hartzen dutenak dira. Azkenean hauek, entrenamenduak, partiduak, afariak eta abar eginez denbora asko igarotzen dute elkarrekin. Klaseetan, berriz, Peñascalekoen kasuan behintzat, jende autoktono gutxiago dagoela azaltzen du hezitzaileak. Lanbide-heziketa egiten dutenen kasuan, hemengoak diren pertsona gehiago aurki daitezke, baina Lanbidek eskaintzen dituen kursoetan, aldiz, zergatia jakin ez arren, normalean, atzerritarrak direnak batera jartzen dituzte, beraz, hemengo jendearekin harremantzeko aukera gutxiago dute.

Hezitzailearen aburuz, aurretik aipatutako ekimenetan parte hartzen duten gazteekin lan egitea errazagoa da. Izaera irekiagoa, inizatiba gehiago eta parte-hartzailegoak direlako. Ekimenetan parte hartzen ez dutenak, izaera itxikoak izaten dira eta gehiago kostatzen zaie hezitzaileei gertatzen zaiena esatea.

Hemengo jendeak noizbait beraiekiko arrazakeriazko jokerarik izan duela ere azaldu dute bi gazteek, hala nola, metrora sartzerakoan ondoan zegoen emakumeak poltsoa bereganatzea edo norbaiten ondoan esertzea eta hau lekuz aldatzea, besteak beste. Horrelakoak gertatu zaizkien arren, orokorrean, oraingoz, hemengo jenderengandik ez dutela jarrera arrazista gogorrik pairatu azaltzen dute. “Aquí en el País Vasco hay muchísimo menos racismo, yo por lo menos he vivido ese caso solo. Porque yo he escuchado a algún amigo que vive en Barcelona que ahí son más racistas, pero aquí en el País Vasco en general no” (E2, Gazte migratzailea). Hala ere, badakite estigmatizatuta dagoen kolektibo baten parte direla.

Familiekin duten harremanaren inguruan, orokorrean gazte migratzaileek beraien familiekin duten harremana oso estua dela dio hezitzaileak. Gazteek ere, egunero hitz egiten dute beraien familiekin, baina soilik ondo daudela esaten diete “solo lo bueno para que no se preocupe”(E2, Gazte migratzailea). Ondo daudela esateko joera hori denek dutela aipatzen du hezitzaileak, beraien familiak engainatuta dituztela dio, dena ondo doala esaten diete nahiz eta hori egia ez izan.

Una cosa por ejemplo súper complicada es conseguir el pasaporte, si no tienen el pasaporte pues es muy difícil de conseguir, por ejemplo, cuando son argelinos. Es que es horrible porque el consulado de Argelia, que está en Barcelona, y los argelinos para conseguir el pasaporte tienen que tener el permiso de residencia, no muchos tienen permiso de residencia, porque, claro, si no tienes el pasaporte no puedes tener permiso de residencia (...). Entonces,

¿qué pasa? que para conseguir pasaporte necesitan la Carta Nacional de su país, unos documentos que hay que pedir a su país de origen, es decir, a su familia. Bueno pues hay algunos que literalmente prefieren perderlo, decir “Voy a estar sin nada de papeles porque no le quiero decir a mi familia que he venido a España y todavía no tengo papeles”(E4, Hezitzailea).

Errekurtsio gehienek helburua gazte hauen gizarteratzea eta laneratzea da, normalean laneratzeari ematen diote garrantzi gehiena. Baina hezitzaileak dioenez, *Teilapean* proiektutik behintzat, gazteak pisuak dauden auzoetan integratzea bultzatzen dute, horretarako, auzo-ekimenetan parte hartzera bultzatzen dituzte. Hezitzailearen aburuz, errekurtsioetan zenbait gazteren laneratzea gertatu da eta errekurtsioek gazte hauen gizarteratzea sustatzen dutela pentsatu nahi du.

- **Covid-19ak izan duen eragina**

Covid-19ak hainbat arlotan izan du eragina. Lehenik eta behin, Maddalen Epeldek (E-1) koronabirusak inoren kargura ez dauden adingabeen migratze prozesuan eragina izango duela eta honen beherakada bat eman zitekeela aurreratu zuen. Peñascaleko hezitzaileak beherakada hau baieztatu du zenbait zentro ixten ari direla ziurtatuz.

Konfinamenduari dagokionez, elkarrizketatutako gazteek aipatzen dute nahiko ondo eraman zutela etxean egote hori. Bata, lanean zegoen bitartean, bestea, ikasten zegoen. Azkeneko honek ikasketak online jarraitzeko baliabiderik ez ziotela eman adierazi du. Hezitzaileari dagokionez, konfinamenduan, Cruz Roja-k Miribillako kiroldegian sortutako kalean zeuden pertsonentzako behin-behineko aterpetxean, lan egin zuen. Berak dioenez oso gorra izan zen, bertan, 50 gizonezko eta bi hezitzaile egon ziren. Perfilari dagokionez, 50 pertsonetatik 30 inoren kargura ez dauden eta adinez nagusiak direnak ziren, 8 autoktonoak ziren eta marokoarra zen adineko bat ere bazegoen. Pertsona bakoitzak bere arazoak zituen, asko kontsumitzaileak ziren eta gaixotasun mentala zuten batzuk ere bazeudela aipatzen du. Ezin ziren bertatik atera, gainera, ertzaiztaren presentzia egun osoan zehar zegoen eta borroka etengabekoak ziren. Ondoren, ramadama hasi zenean, banandu egin zituzten eta Miribillako kiroldegia ramadama egiten zuten pertsonentzako egokitu zen. Honez gain, aurrez aipatutako adineko marokoarrak bere buruaz beste egin zuen.

Si, pues super heavy. Pues por sobredosis se suicidó y encima era como bastante referente. Era marroquí y era el padre de todos y nos ayudaba un montón porque los chavalitos eran los que armaban, tenían pinchos y así. Había pues jóvenes que pertenecían a diferentes bandas, entonces de estar en Sanfran pues muchos se conocían. Imagínate jera un cóctel molotov eso! este hombre nos ayudó un montón. No te voy a decir que era imán pero era algo de la mezquita y se había quedado en la calle y le respetaban bastante y se suicidó. (...)Sí fue súper duro, sobre todo para cuatro chavalitos que llevaban viviendo con él en la calle 4 años y vino

GIZAKIA para atenderles psicológicamente porque fue súper duro, porque uno de ellos fue el que se encontró el cadáver.

Covid-19ak eragina izan duen beste arlo bat laneratzea da, aurretik aipatu moduan, gazte hauetako gehienek ostalaritza sektoreko ikasketak gauzatu dituzte eta pandemiak hau kaltetu du gehien. Hortaz, bertan praktikak egiteko edo lanean hasteko zailtasunak izan ditzakete eta enpresa asko ixteko beldurrez daude. Sukaldaritzako sektorekoek, berriz, aukera gehiago dituzte, batik bat elkarrizketatutako gazteetako batek adierazi moduan, harakintza kurtsua burutu, praktikak egin eta orain, lanean dago. Kasu honetan, janaria lehenengo behar moduan sailkatzen denez, zorte handiagoa izan du.

Cuando tenemos alguna regularización para hacer el permiso de trabajo llamamos a las empresas y les explicamos. Yo por ejemplo (...) Me pasaron algunos chicos que se les había hecho una oferta de trabajo y tenía que ponerme en contacto con las empresas y explicarles, porque, al final, en las empresas están súper perdidos y son muchísimos papeles (...) Bueno te pones en contacto, les explica el proceso y tal, y igual te juro llame a tres empresas y me dijeron lo mismo: “ y por lo que sea si cesa este contrato o ¿si tengo que cerrar?” Y yo siempre les digo lo mismo, pues mira es que ahora mismo esto está al orden del día sabemos qué puede pasar pero estás ayudando mucho a una persona, porque una vez que tengan contrato de trabajo, la oferta de trabajo o el precontrato ya se mete a extranjería. Extranjería les regulariza y ya les da el permiso de residencia. Que luego tienen que empezar a trabajar en diciembre y resulta que la empresa cierra, pero es que ya están regularizados esos chavales (E4, Hezitzailea).

Gazte hauen gizarteratzean ere efektua izan du pandemiak, bereziki, azkenaldian ezarritako murrizketek (udalerritik ezin mugitzea, lauko taldeetan egitea jarduerak, kirola murriztea, ostalaritza ixtea,...) pertsona autoktonoekin harremana eten dute. Taldeko kirola gizarteratze tresna gisa zutenek, ezarritako murrizketekin ezin izan dute entrenamendurik, partidurik, ezta ekipokoen arteko afaririk egin ere, honek harreman hori mantentzea zaildu du. Bakarkako kirola egiten zutenen kasuan, esaterako, boxeoa, entrenatzera joan ahal izan dutenez, beraiengan ez du horrelako eragin larririk izan. Lauko taldeetan jarduerak egin behar horrek, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Itaca eta horrelako hainbatek prestatutako ekintzetan parte hartzeko zailtasunak ekarri ditu, talde kopurua dela eta izen-ematean plazak mugatzean, kanpoan gelditu direlako. Gainera, hezitzaileak dioenez, koronabirusa bera existitzen dela ulertzea kostatu egiten zaie. Okerren eramaten duten murrizketari dagokionez, etxeratze orduarena eta maskararena da, bestela, gainontzeko gutzia, orokorrean, nahiko ondo eramaten dutela azaldu du.

Dirudenez, elkarrizketatutako gazteek baita hezitzaileak berak ere, pandemia garaian, poliziaren presentzia nabarmen igo dela antzeman dute. Elkarrizketatutako gazte batek, konfinamenduan lanean aritu zenak zehazki, lanera zihoanean gelditu izan dutela azaldu du.



“En la pandemia, cuando habían cerrado todo, pues a diario me paraban porque ven un chico joven que no es de aquí, además un marroquí y encima madrugando, ¡pues imagínate! Hubo una semana que me pararon a diario” (E2, Gazte migratzailea).

(...)antes tenían un foco ahora tienen tres. Si en general en la sociedad se han aumentado las multas y así en estos es una pasada (...) sí que hemos visto que en los últimos meses la policía sí que les ha parado más a estos chavales. O sea, hemos tenido agresiones policiales a diferentes chavales en diferentes lugares y por diferentes motivos (E4, Hezitzailea).

Amaitzeko, Peñascaleko hezitzaileak aipatzen du koronabirusak ere bere alde positiboak ekarri diela gazteei eta horietako bat hauen osasun-egoera erregularizatzen laguntzeko balio izan dela dio, orain bakoitzak bere medikua eta osasun arreta bermatuta baitute.

## 5. Emaitzak

Testuinguruan zein elkarrizketetan aipatutakoa aztertu ondoren, inoren kargura ez dauden eta adinez nagusi diren gazteen kolektiboaren errealitateari buruz hainbat ideia eta ondorio atera daitezke. Hasteko, kolektibo honen jatorriari dagokionez, ikusi daiteke pixkanaka aldaketa batzuk eman direla urte hauetan zehar. Lehen eta orain ere, jatorri Marokoarra dutenak gailentzen diren arren, Afrika Iparraldeko jatorria duten geroz eta gazte gehiago daude. Migrazio prozesua egiteko modua ere aldatzen joan dela ikusi daiteke, lehen kamioi azpian egitea ohikoagoa zen arren, gaur egun, gehienek pateretan egiten dute prozesu hori. Migrazio prozesua abian jartzeko arrazoi nagusia ekonomikoa da, eta Euskal Herria prozesu horren helmugatzat hartzearen zergatia, ahoz-ahoko zurrumurrua da; Euskal Herrian, Espainiako babes-sistema “hoberena” aurkitzean datza batipat argudio nagusia.

Aurrez aipatutakoaz gain, ikusi da Covid-19aren pandemiak eragina duela kolektibo honen etorreran, kopuruak jaisten ari baitira. Ondorioz, inoren kargura ez dauden adingabeen zenbait zentro ixten ari dira. Era berean, hauek hainbat gabezi dutela antzeman da. Alde batetik, zentro hauen kokapenak, bertako pertsonen jatorriak, arauak eta ordutegiak, pertsonen kopuruak eta abar, gazte hauengan eragin negatiboak dituela ikusi da. Alderdi negatibo nagusia gazte hauen gizarteratzea zailtzen duela da. Zentro hauetan, jatorri atzerritarra duten adingabeak soilik egoteak, hirigunetatik at kokatzeak eta ikasketak gauzatzen dituzten ikastetxeetan gehiengoena atzerritarrak izateak, gazte hauei pertsona autoktonoekin harremantzeko dituzten aukerak murrizten dizkie. Bertakoekin harremantzeko duten aukera bakarra kirol-aisialdira murrizten da, taldekako kirolera hain zuzen ere. Beste alde batetik, horren zentro gutxi egotean, eta adingabeen zentroen kopuruak gora egitean, harrera-sistemak gainezka egiten du eta honen ondorioz, ematen zaien arreta eskasa

bilakutzen da. Horregatik, adingabeentzako emantzipazio pisu erdi-autonomoetan gustorago daude gazteak, askatasun gehiago dutela somatzen dutelako.

Adin-nagusitasuna betetzen dutenean gazte hauek adingabeak direnean dituzten arazo antzekoekin egiten dute topo. Hasteko, errekurtsio oso gutxi dituzte eta askok ez dute hauen berri. Adinez nagusi bihurtzean, galduta eta desinformatuta sentitzen dira eta ez dakite nora edo norengana jo behar duten, hainbatek ez daki beraien egoera administratiboa zein den, ezta eta honen inguruan eman behar dituzten pausoak zeintzuk diren ere. Bestalde, *Estrategia jóven* errekurtsora sartzeko, gaur egun, gutxienez, urte bete itxaron behar dute eta, tarte horretan, dituzten aurrezkiekin biziraun behar dute. Oraintxe bertan, *Bidea Lantzen* eta *Hemen* proiektuak egon arren, hauek tramite administratiboetan soilik eskaintzen diete laguntza. Bestalde, lo lekuei dagokionez, itxaronaldi horretan, beraientzako Peñascal Kooperatibak eskaintzen dituen bi aterpetxe eta Bilboko Udalak dituen aterpetxeak baino ez dituzte.

Somatu den beste gabezieta bat gazte hauen autonomia da, arrazoia bikoitza da: dokumentuak eta tramiteak ulertzeko zein egiteko korapilatsuak direlako eta hezitzaileek hori sustatzen dutelako. Hezitzaileak, batez ere, tramite administratiboak eta medikurako edo lanbiderako hitzorduak egiterako garaian, paternalismo eta erosotasunean erortzen direlako gertatzen da. Hezitzaileek, badakite sistemak nola funtzionatzen duen eta azkenean, azkarrago egiteagatik beraiek egiten dituzte horrelako izapide guztiak.

Gainera, administrazio kontuetan nahiz eta zenbait baimen lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak lortzea erraza izan, hauen ebazpenak lortzeko urteak behar dira. Hala ere, orokorrean, baimenak lortzeko jartzen dituzten irizpideak nahiko eskuragaitzak dira, batez ere, tutoretzaperik gabe egon direnentzat.

Nabarmentzekoa da gazte hauen gehiengoak, ia denak ez esateagatik, oinarritzko ikasketak baino ez dituela burutzen, horrek laneratzeko aukerak murrizten ditu eta ezegonkorrenak diren lanak eskuratzera bultzatu. Edonola ere, ikusi daiteke, Covid-19ak eragina duela gazte hauen laneratzean. Gehiengoak, ostalaritza sektorean lan egiteko ikasten du eta urte honetan zehar, begietsi den moduan, pandemia honi aurre egiteko neurriek bortizki astindu dute; beraz, oso zaila izango dute sektore honen lan-merkatuan sartzea. Dena den, 2008ko krisiak eta orokorrean, krisi ekonomiko guztiek, ezegonkorrenak eta prekarioenak diren lanbideak kaltetzen ditu bereziki, hortaz, Covid-19ak ekarriko duen krisi ekonomikoa dela eta, gazte

hauek datozen urteetan lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak izango dituztela aurreikusita daitezke.

Elkarrizketetatik atera daitezkeen beste ondorioetako bat da gazte hauen gizarteratzea lan-merkatuan oinarritzen dela. Adin txikikoak direnean, ikastera bideratzen dituzte ahalik eta azkarren lan bat bila dezaten, azkenean, gazte hauen migrazio proiektuaren helburua hori delako. Horrez gain, testuinguruan azaldu den moduan, lan bat eskuratzeak gazteari gizarteratzea bermatuko dion alderdi guztiak (sozio-estrukturala eta soziokulturala) lortuko lituzke. Horregatik, aurretik aipatu moduan, lanpostu bat ez izatean, ez lukete gizarteratzea lortuko. Gazte hauek gizarteratzeko beste modu bat aisia da, batez ere, taldeko-kirola, bertan pertsona autoktonoekin harremantzeko aukera dutelako, hala ere, pandemiaren neurri murriztaileekin hau dena gelditu denez, ezin izan dute parte-hartu eta beraz, gizarteratzeko modu hori ere eten egin da.

Bestetik, agertu den beste gaietako bat, gazte migratzaileen bi perfil bakarrik kontuan hartzen direla da. Bata, jarrera ona duen gaztea, arazoetan sartzen ez dena... izango litzateke eta bigarrena, jarrera txarra duena, arazoetan sartzen dena, kontsumitzen duena.... Hortaz, esaterako, gaixotasun mentala edo aniztasun funtzionala duten gazteentzat ez dago errekurtsorik.

Azkenik, Covid-19aren pandemiak beste bi arazo azaleratu eta areagotu ditu. Hasteko, konfinamenduak, kalean bizi diren pertsonen kopurua handia dela begi bistan utzi zuen, horregatik, egoera horretan zeuden pertsonentzako udal kiroldegiak beraientzat prestatu zituzten. Honek, egoera horretan bizi zirenen gehiengoa adinez nagusi diren gazte migratzaileak zirela agerian utzi zuen, hauentzako nahikoa errekurtsorik ez direla bistaratu. Gabezi hauengatik, proiektu berriak sortzeko beharra sortu zen eta honengatik sortu dira *Teilapean* gisako programak. Amaitzeko, pandemiaren ondorioz ere, presentzia poliziala zein arrazakeria nabarmen igo dela antzeman daitezke, poliziak gazte hauek lehen baino gehiago gelditzen ditu eta hauenganako indarkeriak ere gora egin du.

## **6. Ondorioak**

Ikerketa honek, inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileak adin-nagusitasuna eskuratzean aurkitzen duten egoera zein den eta gaur egun Covid-19-ak nola eragiten dien aztertzea izan du helburu. Elkarrizketatutako lau pertsonen helarazitako informazioa aztertu eta gero, ikerketaren helburuak bete direla esan daitezke.

Azterlan osoan zehar gehien nabarmendu den alderdia da gazte migratzaileei artatzeko ezarritako sistemak ez duela funtzionatzen eta gabezi asko dituela. Esan bezala, antzematen da sistema honen helburu nagusia ez dela hauen gizarteratzea lortzea, izan ere, ezarritako gizarteratze sistemak ez du funtzionatzen. Gazte hauek lan-merkatuan sartzea du jomuga eta horren bitartez lortu nahi da gazte hauen gizarteratzea, baina lan-merkatuan sartzen ez badira, ordea, ez da lortuko gizarteratze hori ematea. Aurreko atalean aipatu den moduan, Covid-19arekin jada ikusten ari da gazte hauek lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztela eta hurrengo urteetan pairatuko dugun krisiak, orain arteko krisiekin gertatu den moduan, gazte hauek lanpostua aurkitzeko oztopo ugari izango dituztela aurreikusi daiteke.

Bestalde, etortzen diren gazteentzako errekurtsioak ez dira nahikoak, ez adingabeak direnean, ezta adin-nagusitasuna lortzen dutenean ere. Horrez gain, babes-sistema ez dago gazte migratzaile kopuru handiak etortzen direnerako prest eta honen eraginez babes-sistema hori kolapsatu eta ondorio larriak ekartzen ditu gazteengan.

Hau dena kontuan hartuz, ondorioztatu daiteke estatuak zein gobernuak inoren kargura ez dauden adingabeak legalki babesteko ardura dutenez, hau betetzen dutela ikustarazteko sortutako sistema dela. Beraien helburu nagusia, ez da gazte hauek gizarteratzea, gazte hauek adingabeak diren bitartean nonbait izatea baizik. Horregatik, adingabeak direnean errekurtsio gehiago dituzte, eta ekonomikoki egonkor egoteko eta oinarrizko beharrak asetzeko beharrezkoak diren baliabideak ematen dizkie. Adinez nagusi bihurtzean, berriz, gobernuak legalki duten ardura hori “desagertu” egiten denez, errekurtsio askoz ere gutxiago daude eta ondorioz, gazte hauek adingabeak zirenean zuten egonkortasuna galtzen dute egoera zaugarri batean aurkituz.

Amaitzeko, ikerketa honetan argitu gabe geratu diren gabezi batzuk antzeman dira eta hauek etorkizuneko ikerketa lerroak izan daitezke. Lehenik eta behin, Covid-19ak gazte migratzaileengan izan ditzaken ondorioak (ekonomikoak, juridikoak, psikologikoak, emozionalak, sozialak...) oraindik ezin dira guztiz jakin, horregatik, ikerketa honen ildoak jarraitzea premiazkoa izango da. Bigarrenik, elkarrizketetan antzeman da gaixotasun mentala edo aniztasun funtzionala duten gazteentzako errekurtsorik ez dagoela. Kontuan hartzen ez den beste profiletako bat, identifikazio arazo baten ondorioz, adin txikikoentzako zentroetan egon diren, baina adinez nagusiak diren gazteak dira eta babesik gabe geratzen dira. Alabaina, gazte migratzaile nesken inguruko informazioa aurkitzea ere oso zaila da, existituko ez balira bezala, eta egon badaude, baina ez dago beraien berririk. Beraz, profil hau

duten pertsonekin zer gertatzen den aztertzea beharrezkoa da. Bestalde, gazte hauen gizarteratzeko moduak aldatzea beharrezkoa dela nabarmendu da, horrenbestez, ezinbestekoa da prozesu hori beste ikuspegi batetik aztertu eta beste modu batean planteatzea. Amaiera moduan, azpimarratu daiteke hezitzaileok gazte hauen bizitzetan izugarritzko eragina eta garrantzia dugula beraien hazkuntzan erreferenteak garelako. Elkarrizketetan gazteek hezitzaileekin izan dituzten harremanak plazaratu dituzte, batzuekin ona izan dute, baina beste batzuekin, ostera, ez horren ona. Hori dela eta, esan daiteke hezitzaile eta gazteen arteko harremanak aztertzea eta hauek gazteengan duten eragina ikertzea nahitaezkoa dela hauek ahalik eta osasuntsuenak izan daitezen.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

- Migratzaile batek bere buruaz beste egin du Donostian, Jaurlaritzaren tutoretzapeko etxe batean. (2021eko apirilaren 22a). *Argia*.  
<https://www.argia.eus/albistea/migratzaile-batek-bere-buruaz-beste-egin-du-donostian-jaurlaritzaren-tutoretzapeko-etxe-batean>
- Banco de España. (2020). *Escenarios macroeconómicos de referencia para la economía española tras el covid-19* (2/2020).
- Barba, M. (2019). Los menores marroquíes en Bizkaia, un colectivo en cuarentena social. *Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria*, (67), 1-21.
- Bilboko Udala. (2021). Acceso a prestaciones elementales (alojamiento temporal, alimento y vestido). Bilbao.eus.  
[https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=BIO\\_Servicio\\_FA&cid=3007512658&pagename=Bilbaonet%2FBIO\\_Servicio\\_FA%2FBIO\\_Servicio&language=es](https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=BIO_Servicio_FA&cid=3007512658&pagename=Bilbaonet%2FBIO_Servicio_FA%2FBIO_Servicio&language=es)
- Blanco, C. (2008). Inmigración extranjera en el País Vasco. Estrategias políticas para la gestión de la diversidad. *Política y Sociedad*, 45(1), 187-203.  
<https://revistas.ucm.es/index.php/POSO/article/view/POSO0808130187A>
- Blanco, C. (2001). La integración de los inmigrantes. Fundamentos para abordar una política global de intervención. *Revista Migraciones*, 10, 207-248.
- Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad. (2018ko ekainak 25). Diputación pone en marcha una nueva estrategia para atender los casos de exclusión social entre jóvenes mayores de edad. *Bizkaia Foru Aldundia*.  
<https://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/18771>
- Chedaddi, Z. (2018). Integración socioeducativa de los Menas en la cav [Trabajo de fin de grado]. Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Herria.
- Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, (2018ko urriak 25). ‘Gandarias Etxea’ se suma a la estrategia joven foral de atención a jóvenes en exclusión social. *Bizkaia Foru Aldundia*.  
[http://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/18986?\\_News\\_redirect=%2Fes%2Fempleo-inclusion-social-e-igualdad](http://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/18986?_News_redirect=%2Fes%2Fempleo-inclusion-social-e-igualdad)
- Dirección de la Inmigración y Gestión de la Diversidad (2011). *Plan de inmigración, ciudadanía y convivencia intercultural (2011-2013)*. Vitoria: Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, Gobierno Vasco.
- Epelde, M. (2014). Euskadiko gazte migratzaile tutelatu ohien emantzipazio prozesuak krisi ekonomikoaren testuinguruan: gizarteratze estrategiak aldatzeko beharra. *Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria*, (57), 103-119.
- Epelde, M. (2017). *Nuevas estrategias para la integración social de los jóvenes migrantes no acompañados*. [Tesi doktoral]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Osakidetzak ez du “alertarako arrazoirik” ikusten koronabirusaren bilakaeran. (2020ko urtarrila). *Euskal Irrati Telebista*.

<https://www.eitb.eus/eu/albistek/gizartea/osoia/6982224/wuhango-koronabirusa-gaixotasun-infekzioen-aholku-batzordearen-bilera/>

- Garrido, P. (2019). El abismo de la mayoría de edad en los menores extranjeros no acompañados. El desamparo como generador de factores de riesgo en la delincuencia [Gradu amaierako lana]. Universitat Autònoma de Barcelona.
- Hermosilla, G. (2021). Kaletik ere kanporatuak. *Berria*. [https://www.berria.eus/paperekoa/1911/002/001/2021-02-04/kaletik-ere-kanporatuak.htm?utm\\_source=Instagram&utm\\_medium=Sare\\_sozialak\\_CM](https://www.berria.eus/paperekoa/1911/002/001/2021-02-04/kaletik-ere-kanporatuak.htm?utm_source=Instagram&utm_medium=Sare_sozialak_CM)
- Ikuspegi. (2019). *Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzeptzioak eta jarrerak*. [https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/eus/bar\\_CAE\\_2019\\_EUS.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/eus/bar_CAE_2019_EUS.pdf)
- Ikuspegi. (2020). *Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzeptzioak eta jarrerak*. [https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020\\_eus\\_resumen.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020_eus_resumen.pdf)
- Ikuspegi, (2020). *Afrikar Jatorriko Biztanleak EAE-n* (77). <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan77eus.pdf>
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Mendoza, K. eta Belarra, I. (2015). Menores Migrantes en Bizkaia: Entre la protección y el control. *Revista internacional de estudios migratorios*, 5 (2), 227-259. <http://dx.doi.org/10.25115/riem.v5i2.412>
- Monreal, B. eta Paredes, C. (2021). *Informe, Migración en Canarias, la emergencia previsible*. CEAR. [https://www.cear.es/aisladas/wp-content/uploads/2021/04/Informe-CEAR\\_CANARIA\\_S.pdf](https://www.cear.es/aisladas/wp-content/uploads/2021/04/Informe-CEAR_CANARIA_S.pdf)
- Moreno Márquez, G. (2013). Actitudes y opinión sobre los menores extranjeros no acompañados en la comunidad autónoma del País Vasco. *Migraciones. Publicación Del Instituto Universitario De Estudios Sobre Migraciones*, (31), 43-68. <https://revistas.comillas.edu/index.php/revistamigraciones/article/view/921>
- Organización Mundial de la Salud (2020). *Información básica sobre la Covid-19*. <https://www.who.int/es/emergencies/diseases/novel-coronavirus-2019/question-and-answers-hub/q-a-detail/coronavirus-disease-covid-19>
- Oyarbide, E. (2019). Practicum I [Gizarte Hezkuntzako praktiketako memoria, publikatu gabeko eskuizkribua]. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Peñascal Kooperatiba. (2020). *Manual Bidea Lantzen C.D. Estrategia joven*. Peñascal Kooperatiba: Bilbo.
- Peñascal Kooperatiba. (2020). *Teilapean*. Peñascal Kooperatiba: Bilbo.
- Palma-García, M. de las O., Ruiz Mosquera, A. C., & Vives González, C. L. (2019). Jóvenes inmigrantes extutelados. El tránsito a la vida adulta de los menores extranjeros no acompañados en el caso español. *EHQUIDAD. Revista Internacional De Políticas De Bienestar Y Trabajo Social*, (12), 31–52. <https://doi.org/10.15257/ehquidad.2019.0009>

- Sandín, B. Valiente, R. M. García-Escalera, J. eta Chorot, P. (2020). *Impacto psicológico de la pandemia de COVID-19: Efectos negativos y positivos en población española asociados al periodo de confinamiento nacional. Psicopatología y Psicología Clínica*, 25(1), 1-22.  
<https://www.aepcp.net/book/impacto-psicologico-de-la-pandemia-de-covid-19-efectos-negativos-y-positivos-en-poblacion-espanola-asociados-al-periodo-de-confinamiento-nacional-psychological-impact-of-the-covid-19-pandemic-nega/>
- Sánchez, G. (2021eko apirila). Escrivá propone una reforma del reglamento de Extranjería para que 15.000 menores migrantes y jóvenes extutelados no se queden sin papeles. *elDiario*.  
[https://www.eldiario.es/desalambre/reforma-reglamento-extranjeria-pretende-regularizar-15-000-menores-migrantes-jovenes-extutelados\\_1\\_7888330.html](https://www.eldiario.es/desalambre/reforma-reglamento-extranjeria-pretende-regularizar-15-000-menores-migrantes-jovenes-extutelados_1_7888330.html)
- Sousa, D. (2021). Canarias, el Lesbos del Atlántico. *SER*.  
[https://cadenaser.com/programa/2021/04/24/a\\_vivir\\_que\\_son\\_dos\\_dias/1619268755\\_604050.html](https://cadenaser.com/programa/2021/04/24/a_vivir_que_son_dos_dias/1619268755_604050.html)
- Solé, C., Alcalde, R., Pont, J., Lurbe, K., & Parella, S. (1). El concepto de integración desde la sociología de las migraciones. *Migraciones. Publicación Del Instituto Universitario De Estudios Sobre Migraciones*, (12), 9-41.  
<https://revistas.comillas.edu/index.php/revistamigraciones/article/view/7194>
- Subirats, J. (2004). *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*. Barcelona: Fundación "La Caixa".
- Vinaixa, M. (2019). La mayoría de edad: un mal sueño para los menores extranjeros no acompañados. *Universidad Carlos III*, 11(1), 1-32.  
<https://doi.org/10.20318/cdt.2019.4633>
- Quiroga, V. (2009). Menores Migrantes no Acompañados: nuevos perfiles, nuevas necesidades. *En la calle*, (14), 8-14.
- Quiroga, V. eta Sòria, M. (2010). Los y las menores migrantes no acompañados/das: entre la indiferencia y la invisibilidad. *Educación Social*, (45), 13-35.